

2016 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXXI. edizioa



Antolatzailea:



Bergarako Udala
EUSKARABAZTORDEA

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA	5
---------------	---

Ipuina

1. taldea:

Saria: Astea . Eneka Mondragon.....	7
Saria: Beñat eta Itsaso kobazuloan . Uxue Montalvo	11
Saria: Gogor eta bere amatxo . Iker Agirrebeña.....	15

2. taldea:

Saria: Zeru magikoa . June Kalboetxeaga.....	19
Saria: Xabier eta liburua . Maite Errasti.....	23
Saria: Amets lortua . Aitana Aristegi	27

3. taldea:

Saria: Birtuala egun batez . June Arando.....	31
Saria: Haritza erori da . June Odriozola	35
Saria: Lorearen bila . Nora Urkiola	41

4. taldea:

1. saria: Ametsetako labirintoa . Unai Laskurain	47
2. saria: Autobuseko musika kaxa . Izar Sanchez	55
3. saria: Lau zati . Yosselin Guzman	61

5. taldea:

1. saria: Gora Karlos zazpigarrena . Fernando Garatea.....	67
2. saria: Ez ditu hildakoak berpiztuko . Aitor Alberdi.....	79
3. saria: Zutaz harro . Miren Txurruka.....	95

Bertsoa

1. taldea:

Saria: **Autokudeaketa**. Ainhoa Salillas101

Saria: **Koldo Eleizalde lehiaketa**.

Lorea Arenaza, Maitane Gomez, Eider Elorza105

2. taldea:

1. saria: **Maitasuna**. Manex Bengoa109

2. saria: **Euskal Herria**. Jon Mata113

Komikia

1. taldea:

Saria: **Bi sagu teilatuan**. Aroa Lazkoz, Lexeia Rocher117

Saria: **Mara margotzen ari da**. Irati Ziarsolo119

Saria: **Bizia zeukan txorimaloa**. Anne Matilla121

2. taldea:

1. saria: **Alperriko bueltia**. Maren Arevalillo131

2. saria: **Demaseko bazkarixa**. Irati Iñarra.....133

3. taldea:

1. saria: **Teknologiaren iraultza**. Joseba Carnicero135

2. saria: **Larunbat arratsaldeak**. Uxue Egaña137

Kostata, baina, hemen duzue Koldo Elizalde lehiaketako 2016ko lanak biltzen dituen liburuxka. Jadanik, XXXI. edizioa ospatu dugu eta gogor jarraitzen du Bergaran idazleen taldeak.

Lehiaketak bi helburu ditu nagusiki: batetik gure herriko ume, gazte eta helduen idatzizko zein ahozko hizkuntzaren erabilera indartzea, eta bestetik, hizkuntzarekin gozatzeko bide izatea.

Sortzaile txiki, gazte nahiz helduek bere ilusio, amets, tristura eta grinak erakusten dizkigute liburu berri honetan. Horretarako, bide ezberdinak aukeratu dituzte: ipuinak, bertsoak, komikiak antzezlanak etab. Sortzaile bakoitzak, gogo eta sormenaren bitartez, bere mundura eramango gaitu, irakurle gisa gozatzeko eta disfrutatzeko.

Bukatzeko, zorionak saridunei eta nire eskerrik beroenak parte hartzaile guztiei eta baita, lanok epaitzen jardun duten pertsonen ere.

Izaskun Labaien

Euskara batzordeburua

Lehenengo taldea Saria

Ipuinak



Astea

Eneka Mondragon

Astea

Hilabete batean aste barruan baziren astelehena, martitzena, eguaztena, eguena, eguakitza, zapatua eta domeka. Denak ziren oso langileak zapatua eta domeka kenduta. Eta aste barrua kexatzen hasia zen:

–Ez dago eskubiderik gu beti lan eta lan eta bi horiek parrandan.

Geroxeago pentsatu zuten protesta eginda, agian, lortuko zutela bi horiek isiltzea! Baina ez zuten lortu, bi horiek parrandan segitu zuten.

Hamar aldiz saiatu ziren baina alperrik zen bi horiekin. Jadanik kokoteraino zeuden. Ez zekiten zer egin, modu guztietan probatu zuten arren. Denak hasi ziren proposamenak esaten:


–Badakit zer egin! –esan zuen martitzenak.

Denak ados zeuden. Aste barruak ere parranda egingo du orain!

Baina konturatu ziren larunbata eta igandea parranda egiteko zirela. Eta zorionsu bizi izan ziren handik aurrera.

Lehenengo taldea Saria

Ipuinak



Beñat eta Itsaso kobazuloan

Uxue Montalvo

Beñat eta Itsaso kobazuloan

Bazen behin baserri handi bat eta familia bat bizi zen bertan. Baserritarrek bi ume zituzten, Itsaso eta Beñat. Oso alaiak ziren biak eta oso ondo konpontzen ziren elkarrekin.

Zelai bat zuten eurentzat eta han jolasten ziren. Zelaiaren ondoan basoa zegoen eta euren gurasoek honela esaten zieten Beñat eta Itsasori:

–Ez zaitezte basora joan, arriskuak egon daitezke eta!

Baina egun batean Itsasok lore polit batzuk ikusi zituen basora sartzen zen bidexkan, ordenatuta banan-banan.

Lau hartuta zituenean ia basora sartuta zegoen eta Beñatek horrela esan zion urrunetik:

–Ez zaitez basora gehiago gerturatu!

Baina Itsasok aurrera jarraitu zuen loreak biltzen eta Beñat atzetik joan zitzaion. Azkenean basora sartu ziren biak eta galdu egin ziren.

Ibili eta ibili kobazulo bat aurkitu zuten eta kobazulo barrura sartu ziren. Barruan orein hiltun bat zegoen. Orein hiltun horrek honela esan zien:

–Ondo begiratzen baduzue kobazulo honetan urrea eta diamanteak aurkituko dituzue.

Eta hori egia zen. Oso-oso ondo begiratu zuten, eta urre eta diamante pilo bat topatu zuten.

Irtetzerakoan orein hiltunak honela esan zien:

–Bi bide aurkituko dituzue, hartu eskuineko bidea eta basotik irtengo zarete.

Horrela, eskuineko bidea hartuta, etxera itzuli ziren. Euren gurasoak poz-
pozik jarri ziren Itsaso eta Beñat ikustean eta urre eta diamante askorekin
zetozeela konturatzean.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila basoko kobazuloan eta irten dadila
Bergarako plazan.

Lehenengo taldea Saria

Ipuinak



Gogor eta bere amatxo

Iker Agirrebeña

Gogor eta bere amatxo

Gogor oso dinosauro txikia zen. Bere amatxorekin bizi zen, aita hil egin zitzaiolako dinosauro handiago baten kontra borrokan ari zenean.

Gau batean Gogor eta amatxo janari bila joan ziren eta triceraptor-aren izterra aurkitu zuten. Berehala jan zuten dena, gosetuta zeuden.

Ama adi-adi zegoen, arriskua nabaritzen hasi zen. Gogorrek eta amatxok suzko bola bat ikusi zuten lakuaren erdi-erdian. Jausiko zela bazekiten. Amak Gogor ahoan hartu eta lakutik urruti eraman zuen.

Dinosauro denak korrika hasi ziren oihanean. Zerutik suzko bolak, lurretik sumendiak, infernua zirudien.

Dinosauro gehienak hil egin ziren baina Gogor eta amatxo mendirik altuenera igo ziren eta salbatu egin ziren. Bukatu ziren suzko bolak, bukatu ziren sumendiak, dena kiskalita zegoen.

Tsunami handi-handi bat sortu zen eta Gogor eta amatxo eraman zituen beste mundu batera. Han ez zegoen dinosaurorik, denak intsektuak ziren. Gero oihana arakatu zuten. Gogor eta amatxo goseak hilik zeuden. Bat-batean bi dinosauro hegalarik gelditu ziren eta Gogorrek eta amatxok galdetu zieten ea eramango zituzten.

–Ongi da –esan zuten bi hegalariek.

Lurralderik ederrenera eraman zituzten eta han dinosauro pilo bat zeuden: velociraptor-a, triceraptosa, tiranosauroa, diplodocusa, brakiosauroa, alosauroa...

Denak zeuden. Berehala elkar ezagutu zuten denek. Handik denbora batera Gogor handi-handia egin zen, eta lurraldeko handiena bihurtu zen. Indartsuena izateaz aparte besteekin zintzoa zen, eta denek errespetatzen zuten.

Bigarren taldea Saria

Ipuinak



Zeru magikoa

June Kalboetxeaga

Zeru magikoa

Bazen behin neskatila zoragarri bat, Nerea izenekoa.

Nerea oso neska alaia zen eta baita oso bitxia ere. Egunero, jaikitzen zenean, eskolara joan aurretik eginbehar garrantzitsu bat zeukan, zerura joan eta margotu. Bai, bai, zerua!

Goizero, altxatu eta herriko plazara joaten zen. Bertan, beste margolari batzuekin elkartu eta espazio-ontzi batean zerura joan eta margotzen hasten ziren.

Egun batean, zerua margotu ostean denbora zutenez, ilargira joatea erabaki zuten. Heldu zirenean Nereak ilargia ukitu eta eskua izoztu zitzaion, baina zapore gabeko izozki bat berak ez zuen gustuko eta Jupiterrera joan zen. Horrela, planeta esku izoztuarekin ukitu eta bat-batean bere eskua laranjazko izozki goxo bihurtu zen baina, jarraian, eguzkira joan eta berehala urtu zitzaion bere izozki gozoa.

Horrela izaten zen egunero, goizero-goizero, zerua margotu eta poz-pozik joaten zen eskolara. Batzuetan, hegazkinak ere margotzen zituen eta oso politak gelditzen ziren, koloretsuak eta alaiak, bestela, denak zuriak oso aspergarriak iruditzen zitzaiolako.

Beraz, kaletik zoaztenean eta zeru polita ikusten duzuenean, badakizue Nereak margotuko zuela. Eta kontuz! egunen batean margo tantaren bat buru gainera erori daiteke eta; zerua oraindik siku edo lehortu gabe dagoela eta Nerea oraindik zerua margotzen ari dela esan nahi du.



Bigarren taldea Saria

Ipuinak



Xabier eta liburua

Maite Errasti

Xabier eta liburua

Bazen behin Xabier izeneko 9 urteko mutiko bat. Xabierri asko gustatzen zitzaion irakurtzea. Egun batean, Xabier eta bere ama liburutegira joan ziren liburu baten bila. Xabierrek liburu bat hartu zuen eta etxera itzuli zen bere amarekin.

Bere logelara sartu eta ziztu bizian liburua zabaldu zuen. Derrepentean liburuan sartu zen!!

Orduan, pasiotxo bat ematea bururatu zitzaion. Halako batean, dragoi bat ipini zitzaion aurrean eta beldurtu egin zen. Dragoiaren atzetik ahots bat entzun zen esaten:

–“Dragoi, dragoi! Laga mutikoa bakean.” –Eta dragoia joan egin zen.

Dragoia joan zenean, bere atzean neskaxa bat zegoen eta Xabierrek galdetu zion:

–Nor zara zu? Nola deitzen zara?

–Ni, Florentina naiz, eta gazteluko printzesa naiz. Eta zu?

–Ni Xabier deitzen naiz.

Ondoren Florentinak gaztelua erakutsi zion Xabierri. Bat-batean, erregea etorri zen eta galdetu zion printzesari:

–Zein da hau? Eta zer egiten du hemen?

Erregeari ez zitzaion gustatu bere alaba mutiko batekin egotea eta Xabier gaztelutik bidali zuen.

Xabier, triste-triste, liburutik irten eta etxera itzuli zen. Gero, bere amari dena kontatu zion baina bere amak ez zion ezer sintesi. Xabierrek bere istorioa kontatzen jarraitu zuen, bere ama nazkatu eta hurrengo egunean liburua bueltatu behar zuela esan zion arte.

Hurrengo egunean, Xabier eta bere ama liburutegira joan ziren baina bidean liburuko pertsonaiak ikusi zituen Xabierrek eta pertsonaien atzetik joan zen pertsonaiak liburura bueltatzeko asmoz. Hori lortu zuenean eta liburutegira heltzean Xabierren ama liburu bat aukeratzera joan zen. Xabier itxoiten zegoen bitartean, liburutik dragoi beldurgarria agertu zen, sua ahotik botatzen, eta Xabierri ipurdia berotu zion.


Xabier garrasika hasi zen: "Aaaaaaaaaa!" Dragoiari asko gustatu zitzaion Xabierrek halako txilioak egitea eta jarraitu egin zuen aulkiak, mahaia eta liburuak erretzen.

Liburuko beste pertsonaiak ere berriro irteten hasi ziren liburutik (printzesa, erregea, soldaduak...) dragoia berreskuratzeko asmoarekin baina ez zekiten nola egin.

Bitartean, Xabier komunera joan zen eta ahoa urez bete zuen. Komunetik irten eta ura bota zion aurpegira dragoiari. Dragoi guztiz beldurtuta liburu barrura itzuli zen.

Liburuko beste pertsonaiak hori ikustean harritua gelditu ziren eta erregeak, poz-pozik, Xabierri liburu barrura nahi zuenean sartu ahal zela esan zion.

Azkenean, Xabierren amak liburu bat aukeratu zuen, eta irribarrez etxera bueltatu ziren, bakoitza liburu banarekin.



Bigarren taldea Saria

Ipuinak

Amets Iortua

Aitana Aristegi

Amets lortua

Bazen behin Amalur izeneko neskato bat. Zortzi urte zituen eta izaera fidel eta apalekoa zen. Bere ingurukoek askotan galdetzen zuten:

–Eta nola da posible gorputz txiki horretan hain bihotz handia edukitzea?

Joan zen urteko neguko arratsalde hotz batean, askotan egiten omen zuen bezala, lagunekin elkartu zen. Lagunekin egon ostean, etxera zihoala zakarren ondoan zerbait mugitzen antzeman zuen.


Bertara hurbildu zenean belarri luze bat sumatu zuen. Halako batean, zakar artetik txakur bat atera zen, baina irten eta desagertzea bat izan ziren. Amalurrek bere ingurura begiratu zuen baina ez zuen txakurrik ezta pertsonarik ere ikusi, eta etxerako bidea jarraitu eta oheratu egin zen.

Gau hartan, ezin lokartutik aritu zen denbora luzez, txakur haren irudia eta bereganako tristura burutik eta bihotzetik kendu ezinik zegoelako.

Hurrengo goizean, esnatu zenean amets bakar bat gogoratzen zuen: txakurra berarekin zegoela.

Urduri eta kezkatutik altxatu zen eta bere amari gertatutakoa eta sentitzen zuena kontatu zion. Amak hori entzun eta alabaren aurpegia ikusi ostean bi bider pentsatu gabe txakurraren bila joatea erabaki zuen.

Han zegoen txakurra guztiz bustirik eta baita beldurturik ere. Txakurra kale gorritik atera eta beraiekin bizitzera eraman zuten. Amalurrek eta baita txakurrak ere ametsak egi bihurtu daitezkeela ikasi zuten.



Hirugarren taldea Saria

Ipuinak

Birtuala egun batez

June Arando

Birtuala egun batez

Sekula ez zait ahaztuko ordenagailu barruan eduki nuen abentura. 2015eko uda oso berezia izan zen, izan ere, egun oso bat pasatu nuen ordenagailu barruan. Egun horretan, nire amarentzako mezuak eta letrak besterik ez nituen jan. Ni June naiz eta nire abentura kontatuko dizuet:

Abuztua zen, abuztuaren 22a. Goizean jaiki nintzenean, ordenagailua oso arraro zebilen, hori dela eta, zarata arraroak ateratzen zituen. Itzali egin nuen eta gosaltzera joan nintzen, “digestive” gailetak, jogurta eta zukua. Gosalduek ondoren gelara joan nintzen, eta a zer nolako sustoa!

Ordenagailuak txinpartak botatzen zituen! Teklatua ukitzen hasi nintzen eta ziztada bat eman zidan; lurrera jausi nintzen konortarik gabe.


Esnatu nintzenean dena zuri zegoen eta ordenagailu hondoan karpeta batzuk zeuden. Baina benetan konturatu nintzen ordenagailu barruan nengoela neska robot bat niregana etorri eta “la base de datos de virus ha sido actualizada” esan zuenean.

Orduan, oso urduri jarri nintzen; ez nekien non nengoen, zer egiten nuen han eta garrantzitsuena: nola aterako nintzen leku hartatik?

Momentu horretan gose handia nuen (badakit denbora gutxi igaro nuela jan gabe baina nik asko jaten dut). Orduan, karpeta batera sartu nintzen eta testu luze bat zegoen bertan. “L” letra hartu eta poliki-poliki jan egin nuen.

–June! June! Non zaude? –deitu zidan.

Ikusi ninduen eta hanketatik hartu eta tira egin zuen.



Hirugarren taldea Saria

Ipuinak

Haritza erori da

June Odriozola

Haritza erori da

Haize bolada handi bat dator, tximistak, trumoia, kazkabarra...

Erortzen ari naiz! Lagundu!... erori egin naiz.

Erortzen ari nintzen bitartean nire bizitza pasa zait burutik.

Gogoratzen naiz landatu nindutenean haritzaren hazia nintzen, baina poliki-poliki handitzen joan nintzen.

Heldu zen eguna haritz handi eta gogor bat bihurtu nintzena, pozik bizi nintzen basoko laguntxoekin.

Baina egun batean iluntasuna etorri zen, bonbak entzuten nituen, jendea korrika alde egiten, baserritarrak izututa. Guda heldu zen, baserrietan ikara zen nagusi. Soldaduek tripa beteta edukitzeko baserritarrei lapurtzen zieten janaria.

Nire ondoko baserrian oso argiak ziren eta ezkutaleku bat zuten nire ondoan, Ezkutalekuan behi bat zuten gordeta bere esnea edateko. Baina egun batean bonbak isildu egin ziren; hala ere, gosea eta tristura ikusten nituen nire inguruan.

Poliki-poliki argia itzaltzen joan zen eta inguruko baserritarrak alaiago ikusten nituen.

Bergaran industriak sortzen hasi ziren eta zerbait berezia sumatzen hasi nintzen:
KUTSADURA ZEN!!!

Urteak eta urteak kea, zaratak, usainak... jasaten pasa ditut.

Nire besoak ihartzen joan dira, nire sustraiak erretzen eta azken urteetako zaparrada ikaragarriek eta udako bero beldurgarriek nire enbor sendoa zeharo ahuldu dute.

Gaurko haize boladak azken bultzada eman dit.

Baina erori aurretik zerbait esan nahiko nuke: mesedez, zaindu lurra bakarra da eta; ondorengoen etorkizuna zuen esku dago.



Hirugarren taldea Saria

Ipuinak



Lorearen bila

Nora Urkiola

Lorearen bila

Orain dela bi aste, telebista ikusten nengoenean, Nafarroako berri bati buruz hitz egin zuten gaueko Teleberri saioan: Sunbilla izeneko herri baten gaixotasun bat zegoen eta inork ez zekien nola senda zitekeen gaixotasun hura. Halako batean, aditu bat agertu zen esanez Erdi Aroan gaixotasun ohikoa zela eta hori sendatzeko lore oso bitxi bat erabiltzen zela orduan baina, orain, galduta zegoela lorea, inork ez zuelako landatzen eta zaintzen. Adituak zioen, agian, mundu osoan ez zela geratuko lore bat bera ere ez.

Gau osoa egon nintzen berriari bueltak ematen.

Hurrengo egunean amamaren baserrira joan nintzen lehengusinekin batera pare bat egun pasatzera. Maialen, Maitane eta Alaznerekin jolasten ari nintzenean amona etorri zitzaigun.

–Zuek! Igo, mesedez, ganbarara aulki baten bila, asko gaude bazkaltzeko eta ez dauzkagu guztiontzako aulkiak sukaldean. Nik hainbeste eskailera ezin ditut igo eta zuek hanka lirainagoak daukazue.

–Bai amona, egon lasai, gu joango gara –esan zuen Maialenek.

Igo ginen ganbarara eta atea zabaldu genuenean Alaznek esan zuen:

–Zelako nazka! Auskalo noiztik ez den inor hona igo!

Dena hautsez beteta zegoen eta aulkia bilatzen ari ginenean nik beste gauza bat topatu nuen: liburu bat. Oso liburu zaharra zen, sendabelarrei buruzkoa, eta han agertzen zen, marrazki eta guzti, telebistako adituak aipatutako lore bitxi eta misteriotsu hura. Liburuan idatzita zeuden lorearen propietateak, deskribapena eta baita ere zein lekutan aurki genezakeen.

Arratsalde hartan lehengusinen artean hitz egin genuen eta erabaki genuen lorearen bila irtetea, hurrengo egunean, liburuan zehaztutako lekuetaraino.

Hurrengo egunean, motxilak, lo-zakuak, mapak eta janaria hartu eta itsaso ondoko mendirako bidera abiatu ginen.

Bidean gindoazenean bidegurutze bat aurkitu genuen. Itsaso ondotik zihoan bide bat eta bestea, berriz, mendi barrura sartzen zen. Gu itsaso ondotik zihoan bidetik abiatu ginen. Arrain asko ikusten ziren itsaso bazterrean, baita karramarro, maskor eta alga ugari ere.

Halako batean, Maitanek bilatzen geunden lorearen antzeko bat ikusi zuen, eta hartu nahian bide ertzean zegoen aldapatik jausi zen itsas bazterrera. Gu azkar-azkar jaitsi ginen, eta han aurkitu genuen hondarretan etzanda.

–Maitane, ondo zaude? –esan zuen Maialenek.

–Bai, ondo nago, zauri bat besterik ez dut –erantzun zion Maitanek.

Han geundela, urak hingatutako harriak ikusi genituen gure begiekin, baita failak eta fosilak ere, ikastolako liburuan ikusita geneuzkan bezalakoak.

Baina, jada, gosetu egin ginen eta aurrera jarraitu genuen bazkaltzeko leku egokia aurkitu arte. Eseri ginen eta bakoitzak bere bazkaria atera zuen: nik patata tortilla, Maitanek makarroiak, Alaznek paparra eta Maialenek txorizo tortilla. Nik guztiontzako neraman ogia atera nuen motxilatik eta orduan gogoratu nintzen Maialen zeliakoa zela eta ogi normala ezin zuela jan; eskerrak, izebak bere motxilan ogi berezia sartu zion, bestela, Maialen ogi barik geldituko zen eta.

Bazkaldu ondoren, aurrera jarraitu genuen, eta kilometro asko egin genituen, baina ez genuen lore bitxiaren arrastorik ikusi. Itsaso ondoan agertu ginen berriro ere eta hondarretara jaitsi ginen deskantsatzeko, oso nekatua baikeunden.

–Olatu erraldoi bat dator!!! –esan zuen Alaznek.

–Bai zera!!! –esan zuen Maitanek.

–Egia dela!!! –jarraitu zuen Alaznek.

Eta, bat-batean, olatu batek goitik behera busti gintuen. Barre batzuk bota,

toailarekin pixka bat lehortu eta han jarraitu genuen hondarretan etzanda nik lo hartu arte.

Halako batean, Maialenek esnatu ninduen oihukatuz:

–Tsunami!!!!

Salto batean esnatu nintzen baina tsunamiak harrapatu eta olatuak eraman egin gintuen. Itsaso zabalaren erdian geunden bat-batean eta igerian hasi ginen, norabiderik gabe. Ordu batzuk geroago, eta korronteak eramanda, irla batean agertu ginen. Ez geneukan ezer jatekorik eta arboletako fruituak jan genituen gosea asetzeko. Ni arbola gainean nengoenean Alazne korrika etorri zen esanez:

–Lorea aurkitu dut!!

Ni segituan jaitsi nintzen, liburua hartu nuen marrazkiak begiratzeko eta hantxe zegoen: lore berdina zen, inongo zalantzarik gabe!

Egia zen, lorea aurkitu genuen. Sekulako pozez denok saltoka eta barrezka hasi ginen.

Baina poza laster bukatu zen.

–Eta orain, nola bueltatuko gara? –galdetu zuen Maialenek.

Itsaso ondoan eseri ginen ea itsasontziren bat ikusten genuen. Ordu ugari egon ginen han itxaroten eta iluntzean argi bat ikusi genuen urrutian. Denok garrasika hasi ginen:

–Lagundu!!

Itsasontzi txiki bat zen, gizon zahar batena. Gu ikusi eta guregana etorri zen. Dena azaldu genion eta kostalderaino eraman gintuen. Hondartzaren ondoan, haitz batzuen azpian pasatu genuen gaua eta goizean, esnatu ginenean, etxerako bidea hartu genuen.

Etxera heldu ginenean kotxea hartu eta Nafarroara joan ginen, Sunbillara hain zuzen ere. Lore bitxia era amamaren ganbaran aurkitutako liburua eman genizkien eta herritarrek festa bat eskaini ziguten udaletxean gure esfortzuarengatik.

Laugarren taldea 1. saria

Ipuinak



Ametsetako labirintoa

Unai Laskurain

Ametsetako labirintoa

Markel amildegi baten parean esnatu zen. Atzera begiratu, eta bakarrik korridore luze eta amaigabe bat ikusi zuen. Eskuinera eta ezkerrera begiratu, eta bakarrik horma luze eta sendoak zituen lagun. Orduantxe, bizkarrean bultzada indartsu bat sentitu, estropezu egin eta amildegian behera erori zen.

Ezustean, Markel bere logelan esnatu zen eta bere gela utzi zuen bezalaxe zegoela konturatu zen. Gauzak begiratzeko hasi eta berehala bere animalien posterra ohe gainean egon beharrean ate atzean ezkutatuta zegoela sumatu zuen.

Ohetik jaiki eta posterra bere lekura eraman nahian, hau ezin zuen mugitu. Ate atzean itsatsita zegoen posterra behetik gora saiatu zen apurtzen eta azkenean lortu zuen zati bat kentzea. Goiko aldea mugitu ezinik zebilela, poster atzetik argi zuri bat ateratzen zela ikusi zuen. Poster atzetik irtendako argia pixkanaka itzaltzen zebilen eta ezaguna egiten zitzaion leku bat ikustea iruditu zitzaion. Ametsetan ikusitako hormak ziren! Beldurrez posterra kendu eta hormak segidan desagertu ziren. Dena ahaztu nahian, gosaltzera jaitsi zen sukaldara.

Gosalduta, haginak garbitu eta gurasoak agurtu ondoren, ikastolako bideari ekin zion bere lagun minarekin. Bidean goizean gertatutako guztia kontatzen hasi zitzaion:

- Ezin zara beti ametsetan ibili –esan zion lagunak.
- Ez zen amets bat –zioen Markelek.
- Bai, noski. Posterraren atzean beste toki bat azaltzea edozeini gertatzen zaio, edozeini ametsetan baldin badago beti!

–Ez zela amets bat esan dizut –erantzun zion amorrux Markelek.

–Baietz, mozolo, sinesten dizut...–egin zion keinu lagun minak.

Markel zeharo petraldu zen lagunak ez ziolako sinesten. Hitz bakar bat esan gabe egin zuten biek ikastolarako bidea. Haserretu egin zen ez ziolako sinisten baina azkar pasatu zitzaion haserrea, baina ez zuten hitzik esan ikastolara iritsi arte.

*

Markel berriro amestutako leku berean zegoen, baina bat-batean lurrikara bat hasi zen. Lurrikararen erruz berriro amildegian behera erori zen eta ikasgelako bere mahaian esnatu zen irakaslea bera esnatu nahian eta eskola amaitu zela esanez.

Ettxera itzultzean ez zuen zalantzarik izan: poster atzeko leku hartara joan behar zuen, posterrak hor jarraitzen bazuen, noski. Korrika gelara sartu eta posterra jaso zuen, baina bat-batean posterrak irentsi eta gelatik desagertu zen.

Barrura sartzean bi horma amaigabe ikusi zituen eta korridore luze bat. Korridorea beste hiru korridoretan banatzen zen bere aurrean, eskuin, ezker eta aurrera joateko. Atzean bere gela ikusten zuen posterraren tamainoko zulo batetik, baina bat-batean zuloa desagertu eta bakar bakarrik harrapatuta sentitzen hasi zen.

Markel beldurtu egin zen leku horretan harrapatuta zegoelako, baina labirinto bat zenez, beste irteera bat egon behar zela pentsatu zuen. Korrika bizian lehenengo bide-gurutzera irten zen, eta hortik eskuinera. Nahiz eta leku horretan ez izan inoiz, huraxe ezagutzen zuen sentsazioa zeukan. Bide-gurutzetan nahiz eta sei irteera ezberdin zeuden, bazekien zein norabide hartu.

Azkenik, leku ezezagun batera iritsi zen, tranpa batzuk zeuden leku batera. Hasieran ez zekien zer egin, berak aurrera joan behar zela uste zuen, baina tranpa mordoa zeudenez, beldurtuta zegoen.

Minutu batzuk pasata, aurrera egitea aukeratu zuen, tranpa egon ala ez egon. Bidera sartu behar zenean, horma ikusezin bat topatu zuen. Bertan letra batzuk ageri ziren asmakizun gisa esanez: “Zer da urrea bezain baliotsua dena, baina zaintzen ez baduzu oso erraz gal daitekeena?” Ez zuen asko pentsatu behar izan,

asmakizun erraza zelako, eta esan zuen:

–Laguna.

Hori esan eta letrak desagertu egin ziren, eta jarraian baita horma ere. Bidea desagertu ondoren aurrera jarraitu zuen, eta bidearen aurreko bide-gurutzean tranpa gehiago zeudela ohartu zen, horma ikusezin eta asmakizun gehiagorekin. Beste bide bat aukeratu, aurrera egin eta beste asmakizun bat agertu zitzaion muturren aurrean: “Titarea bezain txikia naiz eta kendu ohi dut bizia”. Asmakizun hura bestea baino zailagoa zen, eta denbora gehiago behar izan zuen asmatzeko, baina azkenean erantzun zuen:

–Bala bat.

Hori esan eta berriro letrak desagertu eta jarraian horma ikusezin hura ere desagertu zen. Desagertu ondoren bide horretatik jarraitu zuen beste bide-gurutze batera arte, baina behintzat oraingoan ez zuen tranparik aurkitu.

Bide-gurutzean bere burua galduta sentitzen hasi zen, ez zekien nora joan, eskuinera, ezkerrera edo aurrera. Asmakizunek labirintoa ezagutzen zuen sentsazioa kendu izan baliote bezala sentitzen zen. Oso ahul zegon korrika asko egiteagatik, eta lurrera erori eta lo seko geratu zen.

*

Markel gauzez esnatu zen erori zen toki berean, eta bere alboan bere lagun mina ikusi zuen bere alboan etzanda lotan. Ez zegoen ziur bera benetan hor zegoenik, beraz begiak igurtzi zituen hor zegoela ziurtatzeko. Begiak igurtzi ondoren berriz ondo zabaltu eta oraindik hor zegoela ikustean, laguna esnatzera joan zen eta hizketan hasi zitzaion:

–Kaixo, Haritz –hasi zitzaion berbetan.

–Non nago? –galdetu zion.

–Ez dakit oso ondo, baina uste dut labirinto edo antzeko nonbaiten gaudela. Egia esan, ez dakit ondo non gauden ez zergatik gauden hemen...

–Eta nola irtengo gara hemendik?

–Hori ere ez dakit, baina pentsatzen dut hau labirintoa izanik, honek irteera bat izan behar duela...

–Baina, non? Eta ez badago? Zer gertatuko zaigu? Eta gosez hiltzen bagara irteera bat aurkitu baino lehen?

–Ez dakidala, mozolo... –erantzun zion tonu amorratuaz– lehen lekua ezagutzen nuela iruditzen zitzaidan baina orain zeharo galduta sentitzen naiz eta ez dakit nora joan...

–Ez dakit zergatik, baina, ni ez naiz galduta sentitzen, izan ere, ni hemen lehenago egon naizenaren sentsazioa daukat...

–Nik ere bai hasieran, baina ordu batzuk eta gero guztia ahaztu zait. Oso ahul sentitzen hasi naiz eta harrezkero gertatutakoaz ez naiz ondo gogoratzen...

–Eta hemendik ateratzeko denbora mugatu bat eman badigute? Ez al da hori izango? Baliteke zuri denbora hori agortu izana baina ni iritsi berri naizenez... Ez al zaizu iruditzen?

–Gu laguntzea nahi badute, esan dezatela non dagoen irteera, kontxo!

–Baina aprobetxatu dezagun nire sentsazioa berau galdu baino lehen.

–Ados.

Hitz egin eta gero, korrika joan ziren eskuineko bidetik, Haritzek gidaturik, noski. Horrela jarraitu zuten korrika, lehenik eskuinera, gero aurrera, ondoren ezkerrera, jarraian aurrera, ezkerrera eta berriz aurrera. Tranpa gehiago ez zeudela uste zuten baina hiru bide eta hiru tranpa zeuden: lehenengoa, hiru otso, gorputz erdi robotikoa zutenak eta beste erdia ile beltzez estalitakoa.

Haritzek aurrera joateko esan zuen nahiz eta beldur izan. Beste horma ikusezin bat zegoen eta bere kontra joan ziren biak. Bat-batean horma ikusezina hizketan hasi zen:

–Aurrera jarraitu nahi duzue?

–Bai –erantzun zuten.

–Aurrera jarraitu nahi baduzue, bidearen azkeneraino iritsi behar zarete otso robota baino lehen.

–Ondo da –erantzun zuten lagun biek.

Hori esan eta horma ikusezina desagertu zen. Ondoren Markelek eta Haritzek pixka bat hitz egin zuten euren artean eta amaitzean korrika egiten

hasteko postura hartu zuten. Ahots batek “bat, bi, hiru” esan eta hirurak ziztu bizian korrika hasi ziren.

Otso robota azkarragoa zenez, Haritzek bere lepora salto eginez abiadura motelduko zuela pentsatu zuen. Markel ez zen honetaz konturatu eta korrika jarraitu zuen. Orain bera zen lasterketan azkarrena. Haritzek otsoari buztanetik tiraka segitzen zuen baina asko kostatzen zitzaion, izan ere, robota indartsuagoa zen. Bat-batean, gainean zeukan pisuagatik robotak estropuz egin eta lurrera luze erori zen. Haritzek robotaren gainetik pasa eta bidearen amaierara iristea lortu zuen, robota alde batera utziz. Lasterketa irabazi zutela ikusita, robotak danbada handi bat egin eta gero guztiz suntsitu zen.

Iritsi ziren toki berrian landare asko zeuden horma luze batzuen barruan, eta landare guztien artean zuhaitz izugarri bat nabarmentzen zen gehien. Haritz eta Markel zuhaitza zegoen tokira hurreratu ziren. Zuhaitza oraindik handiagoa zen gertutik ikusita eta bat-batean hizketan hasi zitzairen:

–Lan ona egin duzue leku honetara iristeko. Horregatik, irteera erakutsiko dizuet hemendik ateratzeko.

Hitz horiek entzun ostean, zuhaitzaren erdialdean zulo bat ireki zen. Zulo hartatik Markelek bere gela ikusi zuen eta Haritzek berea. Ia sinetsi ezinik, bakoitzak beraien logeletara, zulora, sartu ziren bata bestearen ostean.

Markel bere logelan esnatu zen, baina oraingoan bere posterra egon behar zuen lekuan zegoen, ohe gainean. Markelek uste zuen guztia amets bat izan zela, ikastolara joan eta Haritzekin hizketan hasi baino lehen:

–Gaur amets izugarri bat izan dut, eta zu amets horretan agertu zara –mintzo zen Markel.

–Nik ere bai –erantzun zion Haritzek –eta zu agertzen zinen. Labirinto batean geunden eta tranpa batzuk zeuden.

–Nik ere hori amestu dut! Berdin berdina!

–Ez duzu usteko benetakoa izan zenik, ez? –eta biak barrez lehertu ziren.

Hala ere, Markelek pentsakor pasa zuen arratsalde osoa. Beldurtuta zegoen eta arraro sumatzen zuen bere ingurua. Ez zekien oso ondo zer sentitu eta zein modutan. Gauza bat, baina, argi zuen: abentura oraingoan amaitu zela, baina bakarrik oraingoan...



Laugarren taldea 2. saria

Ipuinak



Autobuseko musika kaxa

Izar Sanchez

Autobuseko musika kaxa

Amsterdamen Maddi izeneko neska bat bizi zen. Maddik 15 urte bete berriak zituen, eta ikastera kanpora joateko ordua iritsi zitzaion.

Ez zuen oso erlazio ona bere gurasoekin. Berak zioenez, ez zuten ulertzen, dena berari bizitza zailagoa egitearren egiten zuten... baina berak ez zekiena da, bere gurasoen bizitza ere ez zela batere erraza izan.

Maddi joateko egunaren bezpera zen, eta beti bezala, eztabaida batekin bukatu zuten.

Hala ere, bere gurasoak han agertu ziren, autobus geltokian, Maddiri agur esan eta bidaia ona opatzeko.

Iritsi zen momentua, Maddi autobusera igotzeko ordua zen; nahiz eta haserre egon, besarkada handi batekin agurtu zituen gurasoak.

Autobusera igotzean, asko harritu zen, aulkietako batean bere izena zuen kaxa bat baitzegoen. Baina ez zen edozein kaxa, musika kaxa polit bat zen. Berak ez zuen ulertzen nork eta zergatik ipiniko zuen kaxa aulkian, baina hala ere bertan eseri eta kaxa eskuetan hartu zuen.

Beldurra ematen zion hura irekitzeak, ez baitzekien zer aurkituko zuen, baina beldurra baino handiagoa gogo zuen, kaxan zer aurkituko zuen jakiteko gogo.

Kaxa zabaltzeko indarrak bildu zituen, eta hala egin zuen. Irekitzerakoan, dantzaria dantzan eta biraka hasi zen musikaren konpasean, alboan, gutun-azal bat zuen.

Maddi ez zegoen oso ziur gutuna irakurtzeko momentuan, baina norbaitek bere izena zuen kaxa batean sartu bazuen, berak irakurtzeko izango zen.

Gutun-azala ireki zuen eta gutunarekin batera, argazki bat zegoen. Bertan, bere gurasoak agertzen ziren bera besoetan zutelarik, baina bazegoen bat, berak identifikatu ezin zuena, ez zekien nor zen; bera ere bere gurasoen besoetan zegoen eta biak jaio berriak ziren. Argazkiaren atzealdean, data bat zegoen, bere jaiotegunaren data; hasieran berarekin ospitalean zegoen norbait izango zela pentsatu zuen baina ziur ez zegoenez, onena gutuna irakurtzea izango zela erabaki zuen.

Horrela, gutuna hartu eta irakurtzen hasi zen. Hala zioen:

“Maddi maitea:

Badakigu, inoiz ez dugula oso erlazio ona eduki gure artean, baina jakin behar duzu guk ez dugula inoiz zure bizitza zailagoa egin, gurea ere oso zaila izan baita. Ziurrenik ez duzu ulertzen zergatik mantendu garen zugatik distantzia batera eta badakigu jarraian irakurriko duzuna orain dela asko jakitea nahiko zenuela, baina ez genekien nola azaldu.

Argazkia ikusi duzula suposatzen dugu eta ez duzula argazkiko pertsona bat ezagutu.

Esan behar dizugu, argazkiko neskatoa, zurekin batera dagoena, zure ahizpa bikia zela, Miren. Asko maite zintuztegun biok, baina zailtasun batzuk egon ziren Mirenek 2 hilabete betetzerakoan eta hil egin zen. Oso gaizki pasatu genuen, ez genekien nola egin aurrera, zu nola biziko zinen hori jakinda eta horregatik ez dizugu inoiz kontatu.

Eta zuri horrenbeste kasu ez egitea... hori guztiaren arrazoi bakarra da, ez genuela nahi berriro hain maite genuen pertsona bat galtzea. Ez genekien nola egin eta beharbada, ez da modurik onena izan hau gutun baten bidez kontatzea, baina ez genuen beste aukerarik, ezin zintugun hori jakin gabe joaten utzi.

Ziurrenik zeure buruari galdetuko diozu zergatik bidali dizugun mezua musika kaxa batean. Kontua da, jaio zinetenean, zuen amonak, bakoitzari musika kaxa bat oparitu zizuela, zuri arrosa eta Mireni urdina. Miren hil zenean, zure musika kaxa arrosa berarekin batera lurperatzea erabaki genuen, horrela beti batera egoteko. Orain

bere kaxa eman nahi dizugu zu ere, nahiz eta ez ezagutu, berari lotuta egoteko.

Badakizu guk oso maite izan zaitugula eta maitatzen jarraituko zaitugula beti nahiz eta hori modu egokian helarazten ez jakin.

ZURE GURASO MAITEAK."

Gutuna irakurtzen bukatu zuenerako, begiak malkoz bustita zituen eta gutuna ere negar malkoz bustita zegoen. Tristura malkoak ziren gehienbat, baina, poz edo emozio malkoak ere bai, egia jakin zuelako.

Orduan ulertu zuen bere gurasoek horrela tratatu izana, eta asko eskertu zuen nahiz eta aurrez aurre ez izan, egia kontatu izana.

Orain bazekien, nor zen, nondik zetorren, eta zeintzuk ziren bere bizitzaren sustraiak.

Konturatu zenerako, iritsi zen, Salamankan zegoen.

Autobusetik jaitsi baino lehen, egin zuen lehenengo gauza musika kaxa hartu eta bere bihotzaren kontra estu besarkatzea izan zen.

Bere apartamentura iritsi zenean, maleta desegitea baino garrantzitsuagoa zena egin zuen:

Gurasoek emandako argazkia karteran gorde zuen, musika kaxa armairuan eta momentu honen oroitzapena, inork atera ezin zuen leku batean; bere bihotzaren sakontasunean.

Laugarren taldea 3. saria

Ipuinak



Lau zati

Yosselin Guzman

Lau zati

Bazen behin aingeru bat zerutik lurrera jaitsi zena. Lurrera iristean, zientzialari batzuk harrapatu eta lurrera zertara zetorren jakiteko torturatua izan zen. Aingeruak, aldiz, inoiz ez zuen esan lurrera jaistearen zergatia. Denbora pasatu zen eta aingeruak lehenengo aldiz hitz egin zuenean honakoa esan zuen:

–Laster bizitzara itzuliko da lurraren jainkosa. Lau zatitan banatu eta lau ume ezberdinetan bilakatuko da. Umeek lau urte betetzean hasiko dira jainkosaren izaerak bereganatzen.

Zientzialariak, hau entzutean, zeharo izutu ziren.

*

Pasa zen denbora eta zientzialariak Sara, Maider, Leire eta Maria izeneko lau neskatila aurkitu zituzten. Hauek oso ezaugarri fisiko arraroak zituzten, laurak oso itxura fisiko aldakorra zuten. Esaterako, nesken begiak kolorez aldatzen ziren urdinetik gorrira, beltzera eta alderantziz. Itxura fisikoaz gain, beraien izaera ere oso aldakorra zen, oso alaia izatetik oso triste egotera pasatzen zirelako denbora gutxian. Zientzialariak pentsatzen hasiak ziren “ume bereziak” aurkitu zituztela, baina ez zeuden guztiz ziur.

Neskatilek lau urte bete zituztenean, zientzialariak harrituta geratu ziren neskatilek izan zuten eraldaketarekin. Sarak begi urdin batzuk zituen, ile marroi argia, oso alaia eta soineko gorritz apaindua. Maiderrek begi marroiak zituen, ile beltz-beltza zuen, oso alaia zen eta kamiseta larrosa eta fraka urdinak zeramatzan. Leirek begi berdeak zituen, ile horia zuen, fraka motz batzuk zituen kamiseta txuri batekin eta ez zirudien besteak bezain zoriontsua zenik. Eta bukatzeko, Mariak begi marroiak zituen, ile horia zuen honek ere, oso alaia zen eta soineko oso koloretsu bat zeraman soinean.

Zientzialariak gero eta ziurrago zeuden hauek zirela bahitu behar zituzten neskak eta buruari buelta gehiago eman gabe, bahitu egin zituzten. Izugarria izan zen bahiketaren ostean gertatutakoa. Nesken itxura fisikoa zeharo aldatzen hasi zen, hain zuzen ere, tristatu eta beltzitu egin ziren; ile kolorea guztiz ilundu zitzaien eta izaerek ere behera egin zuten, izaera depresiboa zutela zirudien.

Zientzialariak ez ziren gai neskei zer gertatzen zitzaien jakiteko eta horregatik oso esperimentu gogorrak egin zizkieten. Zientzialariak esan eta esan zebiltzan “Neska hauen berezitasunen zergatia nahi dugu jakin, ez dugu ulertzen! Ez dugu ulertzen berezitasun hauen zergatia!”

Neskek hori entzutean, berriz, hauxe pentsatzen zuten: “Gizakiek bakarrik beraien onerako egin dituzte gauzak, bakarrik beraien onerako direnean. Beti nahi izaten dute jakin gauza guztien zergatia, hain dira berekoiak!”

Zortzi bat urte eta gero, deabru bat agertu eta aingeruarekin hitz egin nahi zuela eskatu zuen, pribatuan.

–Aspaldiko aingerutxo! –esan zuen deabruak.

–Utzi bromak alde batera. Zergatik etorri zara? –erantzun zion aingeruak.

–Neskak zaintzera etorri naiz –erantzun zion deabruak.

–Eta zergatik orain?

–Nesken bizitzak asko ilundu direlako...

–Zer?! –harrituta egin zuen deiadar aingeruak.

–Egia diot, ez zara konturatu, ala? Neskak gizakiak oso berekoiak zirela ikustean, beraiek ere berekoi bihurtzen hasi eta asko ilundu dira.

–Orduan zer egin dezakegu, deabru? –esan zion aingeruak kezkatuta.

–Zuk badakizu ondo zer egin –agurtu zen deabrua.

Aingeruak hori entzun eta gero, zientzialariengana hurbildu zen. Zientzialariak aingerua zetorrela ikustean, hau akabatu, neskatilak hartu eta beste hiri batera mugitu ziren.

Denbora azkar pasa zen, neskatilak jada eskolan lagun berriak eginak zituzten eta oso pozik bizi ziren. Pozik baina baita triste ere bazekitelako 16 urte betetzean lurraren jainkosa bihurtuko zirela. Nesken tristura oso handia zen eta

horrelako gauzetan ez pentsatzeko neskek beraien mundua sortzea erabaki zuten, badaezpada. Hortik, errealitatea baztertzen zuten.

15 urte bete zituztenean, ume izatetik heldu izatera pasa ziren eta 16 urte bete zituztenean, beraien urtebetetzea ospatzeko errealitatera bueltatzea erabaki zuten egun batez, gauzak nola aldatu ziren ikusteko. Ikastolara bisita egin eta han kanpoan deabrua ikusi zuten beraien zain.

–Ordua da –esan zuen deabruak.

–Ondo da –erantzun zuten lau neskek.

–Zer erabaki hartu duzue lurraren kontuarekiko? –galdetu zien deabruak.

–Lurra esperantza barik geratzen dabilela konturatu gara eta jendea oso berekoi bihurtzen ari dela. Gainera inork ez dio garrantzirik ematen besteen sentimenduei... Ez da erraza irtenbide bat topatzea...

–Zer iruditzen zaizue lurra suntsitzea? –esan zuen baxu deabruak irribarrez.

–Ez dugu hori nahi, ez dugu hori esan nahi izan. Oraindik esperantza dugu eta guk lurra kontserbatzea gura dugu!

Horiek ziren hitz gakoak. Deabruak hitz polit hauek entzutean alde egin behar izan zuen betirako. Izan ere, urte latz eta torturek lurra hobeto ezagutzeko balio izan zien neskei. Deabruak alde egin, eta lau neskatilak argitzen hasi ziren, bai kanpotik eta bai barrutik. Bat-batean, laurek bat egin zuten, jainkosa bakar bat bihurtuz.

*

Ordutik denbora asko pasatu da eta hori gertatu zenetik batzuk oraindik beldurra sentitzen dute istorio hau entzutean. Batzuk diote munstro handi eta beldurgarri bat etorri zela mundua suntsitzera eta aingeru onenak borroka horretan hil zirela. Bakoitzak pentsa dezake nahi duena, baina zu, irakurle, oraindik ez al zara konturatu, lau neskez osatutako jainkosa honek zoriontasuna eta esperantza ekarri zizkigula? Zoritarrez, oraindik batzuk deabrua bizi zen bezalaxe bizi dira, eta beste batzuk aingerua bezalaxe jarrera horiek apurtzen ahalegintzen hiltzen dira. Hortxe gu guztion bizitzetako deabru eta aingerua: zoriontsu bizitzen ikastea eta betiere esperantza mantentzea.

Bosgarren taldea 1. saria

Ipuinak



Gora Karlos zazpigarrena

Fernando Garatea

Gora Karlos zazpigarrena

2015eko azaroaren 7a, larunbata, eguerdiko ordu bata eta erdiak, hego haize epela Bergaran. UNEDen egoitzatik atera eta betaurreko beltzak jantzi ditut, inork ezagutu ez nazan.

Ozaeta jauregiaz galdezka hasi naiz plaza nagusian. Atso zahartxo bat tematu da bertaraino laguntzeaz. Ezetz, ez dudala laguntzarik behar. Baietz, komeni zaiola ibiltzea.

Bat, bi, hiru, lau. Nor zara? Lau segundo behar izan ditu lehenengo galdera egiteko.

Galder Preguntegi Dudagoitia naiz, 1950eko irailaren 30ean Gernikan jaioa. Bedarun munduratzekoa nintzen, Euskal Herriko bazterrik ederrenean, baina hamar hilabete egin nituen amaren sabelean, amona emaginak ezin izan zion lagundu alabari erditzen. Ondorioz, Gernikako klinika batean forceps-ekin atera behar izan ninduten babeslekutik, mailatuta. Hainbat egunetan, munduko umerik itsusienaren titulua izan nuen –tximinoaren eboluzioa azaltzeko adibide aproposa, Internetik egon izan balitz–.

Barre egin du andreak.

Amaren sabelean leku nahikorik ez eta oinak atzera begira jaio omen nintzen. Zazpi egunekin oinetako hezur mengelak apurtu eta aurrera begira jarri zizkidaten. Normaltzeko, esan zioten amari.

Ama gaixoa! Erditze minekin aski ez eta seme itsusi bezain kuttunarentzako bularrik gabe geratu zen. Bedaruko Urtza baserriko Txata behi adarluzeak atera ninduen aurrera; beraz, harro esan dezaket, pobrea izan arren, inudea izan nuela, nahiz eta nirea behia izan.

Gustatu zaio atsoari inudearena.

Jaiotzarekin baino suerte txarragoa izan nuen izenarekin. Nori bururatzeko zai San Jeronimo egunean jaio den bati Fernando izena jartzea! Jeronimo izena izan banu, Santa Kruz apaiza bera baino ere ausartagoa eta beldurgarriagoa izango nintzatekeen; Fernando izenarekin, berriz, zalantzatik zalantzara, bilintzi-balantza ibili izan naiz, beti. Izena aldatzea erabaki nuenean, abizenekin bat zetorren bat nahi nuen, eta, Jeronimo baino hobea Galder, ez?

Horixe baietz! Galder Preguntegi Dudagoitia zara, orduan. Eta zer egiten duzu Bergaran?

Hara, nire lagunak gehienak aspalditik daude jubilatuta, bizitza osoa eman baitute, Afrikan, intxaur oskoletan atunak harrapatzen. Haien esanetan, “jubilatu-bizitza mauka duk”; izan ere, Afrikako bizimodu gogorraren ondoan erretreta pagotxa izatea ez da mirari. Baina lehorreko erretiratu batzuek esan zidaten beraiei asko kostatu zitzaizela bizimodu berrira egokitzea. Orduan, nik, lehorrekoa izanik, badaezpada ere, aktibitatearen batean izena ematea erabaki nuen, eta non hobeto Bergarako UNEDen baino?

Eta zer ikasten duzu UNEDen?

Idazten.

Idazten? Ez niri adarrik jo, gero. Idazten umetan ikasten da, eskolan.

Bai, baina UNEDeko Idazle Eskolan ipuinak, nobelak, poesia, saiakerak eta horrelakoak idazten irakasten digute.

Denbora-pasa, beraz.

Horixe! Inbidia puntu batekin begiratu dit. Egoeraz baliatuta, kafe bat hartzera gonbidatu dut eta nire egunerokoa irakurtzera. Pozez zoratzen onartu du gonbidapena, inoren bizitzan horren erraz sartzerik ez zitzaion-eta inoiz burutik pasatuko.

Kafetegi bateko mahai batean eseri gara, kafeak eskatu eta egunerokoa luzatuta, lehen pertsona idazten ikasteko idatzi dudala esan diot. Irrikitan dago irakurtzen hasteko. Kafea ekarri digute. Trago batean edan eta berak eguneroko irakurtzen duen bitartean Ozaeta jauregira hurbilduko naizela diotsat.

Ados!

2015/12/27

Erretreta hartzean, dena planifikatu nuen: eguerdira arte ohean egon, loaz berdinduta jaiki, nagiak atera, gosalduta, egunkaria irakurri... baina ametsa, gogoaren igande: goizero, seietan, intzirika hasten da emaztearen iratzargailua, eta, gainera, bera bakarrik iratzarri beharrean, neu ere esnatu egiten nau. Aparatu madarikatua!

Altxatu eta kazetariak famatuena atzetik nola, halaxe ibiltzen natzaio emazteari etxe guztitik segika, koaderno eskuan eginbeharrak apuntatzen: etxea aireztatu, arropa zuriak eskegi, gimnasiotik bueltan koloreetakoekin ikuzgailua jarri, hautsak kendu, irengagailua pasatu, komunak garbitu, errekaduak egin, bazkaria prestatu... Alaba gaztea jaikitzen denerako, ezkaratzeko mahaia papertxo beteta edukitzen dut, bakoitzean betebeharrak bat. "Egingo al didazu katilua jartzeko tokia, aita?", galdetzen dit hamazazpi urteko alabak eta lekua egiteko, papertxoak errenkadaka eta zutabeka kokatzen ditut, kronologiko ordenatuta.

Zazpi eta erdiak. Badoaz ama-alabak, bakoitza bere eskolara. Neuk ere nahiago nuke joan beharra banu, zeren jubilatuta aurretik banintzen norbait, baina orain, zer naiz? Etxeko jaun? Etxekoandre?

Pentsamenduak uxatzeko, etxeko lanen masterrari ekitea hobe.

Leihu guztiak zabaldu ditut etxea aireztatzeko eta egongelako hautsak kentzen hasi naiz. Lehen, emazteak idatzitako manualari begiratzen nion zer egin behar nuen jakiteko; orain, buruz dakit: oztopatzen dauden objektuak erretiratu, geratzen den espazio libretik hautsa kendu; eta, gero, objektuak, hautsik gabe, lehengo lekuetan kokatu. Ariketa honekin hasi nintzenean, zenbait trastu lurrera erorita apurtzen hasi zitzaizkidan. Lurraren erakartze indarrari bota nion errua, baina, aitortu behar dut, batzuei neuk lagundu niela jauzi egitera, oztopo izateari utz ziezaioten.

Dena den, harrituta nauka hautsaren kontu honek. Nondik agertzen da horrenbeste? Ez al da inoiz agortuko? Horretaz hausnartzen nabilela ez dut, bada, entzuten goiko atsoa alfonbrak astintzen? Neuk leihoak noiz zabalduko egoten da, dongea, alfonbrak astintzen hasteko. Bekatuan doa penitentzia, dio esaera zaharrak, baina, badaezpada, nahikoa ez balu penitentiarekin, ezkaratzera joan eta GAM siglekin jarri dut papertxo bat mahai gainean: Goiko Atsoari Mendekua.

Arropa zuriak eskegi eta, gainontzekoa gerorako utzita, banoa presaka kiroldegira, ordurako heldu ezik ez baituzu harrapatzen gustuko aparaturik. Nire egunonei gogo txarrez erantzun diete kiroldegia noiz zabalduko zain dauden jubilatuek. Atea ireki eta han goaz denok, arrapaladan, aldageletara. Praka motzak eta niki bat jantzi, oinetakoak korapilo birekin lotu, toalla hartu eta gimnasiora. Zinten eremura heldu naizenerako guztiak daude toallekin hartuta, baina zinta gainean, korrika, pertsona bakarra. Detailea eduki du udaletxeak jendearentzako toallak ipinita, esan diot korrikalariari. Ez, ez da izan udaletxea, neuk ipini ditut lagunei lekua hartzearren, esan dit, arnasestuka, lotsagabeak. Jaso ditut gainontzekoen toallak eta kiroldegitik hamar metrora dagoen itsas labarretik behera bota, uretara. Udarako hondartzan izango dituzte, esan diot, bueltan, azal lodinari, eta korrika hasi naiz zinta gainean.

Kiroldegitik ateratzean ke-adarrak ikusi ditut gure etxe inguruko ortuetan. Ez dira, baina, Basilisaren erreturak izango? Beldurrak oinetan hegala jantzita iritsi naiz itsumustuan etxera eta susmoa egiaztatu ahal izan dut: eskegitako arropa zuriak ke hats nabarmenarekin; berriro garbitu behar, eta, han, laurogei urteko emakumea, Basilisa, lasai, ortuan, kulero eta bularretako hutsik, moztutako belarrekin erretura elikatzen. Ezkaratzeko mahai gaineke zerrendari BM sigladun papertxoa gehitu diot.

Papertxoz estalita geratu da mahaia, argi printzarik sartzeko zirrikiturik gabe, ilunetan... Zer pentsatua eman dit egoerak, mahaia nire bizitza adieraz baitezake: zereginez zamatua, norberarentzako tartetxorik aurkitu ezinik...

Neure egunerokoa irakurtzen utzi dudana atsotxoa buruan, konturatzeke heldua naiz Ozaetako jauregiari itsatsitako Zubieta izeneko zubira, Marotoren eta Esparteroren besarkada historikoaren lekura, Interneten arabera. Nire arbaso bat izan zen haren lekuko. Gizajoa burua galduta etxeratu zen besarkada hartatik. Hainbeste ilusio, neke, izerdi, negar eta odol alferrik galduak. Etxekoek, gainera, karrerarik egin ezinda, gela batean giltzapetu behar izan zuten, VIVA CARLOS SEPTIMO deiadarka ematen baitzuen eguna. Gelan, ohea eta pixontzia besterik ez, leihoan bost barra burdinazko, kartzela. Otorduetan, kontzientzia arretatsuz irensten omen zuen ekartzen zioten guztia, pixontzia kaka eta txizez betetzeko xedez; ondoren, eskuekin dena ongi nahasi

eta marroi koloreko orearekin hormak pintatzeari ekiten omen zion: VIVA CARLOS VII.

Baina ez zen Karlos erregegaia maite zuelako, ez, Euskal Herria zuen maite, eta oihuarekin Gora Euskal Herria ari zen esaten; eta halaxe irudikatu dut, gaur, besarkadaren egunean ito behar izan zuen deiadarra oihukatzen, barrua askatzen.

2015/12/28

Gaur, Inuzente eguna, hego-mendebaldeko haizea oso zakar joka dabil boladaka, eta kristalak arretaz garbitzeko egun aproposa izan daitekeela erabaki dut. Olentzerok DIAn erositako kristalak ikuzteko trapu berria hartu, ur berotan busti eta hor ari natzaie balkoiko kristalei zirriak egiten; nik busti, haizeak lehortu. Dena doa primeran, kristal gardenen beste aldean agure zaharmindu bat ikusi dudan arte, neuri begira. Makulu biren premia du zutunik egoteko, baina ez du protesirik behar “nik ez dut andreen lanik egiten” dioen irribarrea aurpegian pintatzeko. Sumindu egin nau begiradak; harrezkero, buruan ez dut beste pentsamendurik haren musutik irribarrea betiko ezabatzea baino.

Nekez doa gizona aurrera, hankak tikun-takunka, oinak tatarrez, bata besteari gailendu ezinda legez. Nire besoek, berriz, kristalak igurzten, berez. Burua, gotortuta, mendekua diseinatzen. Badakit zer egin. Farora iristen utziko diot; han, makulu biak kendu, itsasora bota eta “egiok barre heure amari” esanda lagako dut, bakardadearen errailetan.

Agur kristalak arretaz garbitzeko asmoa. Nagusitu da, beti bezala, lanbroa.

Farora iristeko tartea utzi diot agureari. Korrikalarien arropak jantzi ditut ekintza oharkabeen burutzeko, eta beste barik atera naiz etxetik, arin-aringa. Farorako bidean, Karmele Jaio idazlearekin, bere ama Luisarekin eta izeko Doloresekin gurutzatu naiz, Luisak agur egin dit eskuekin. Helmugara iritsi naizenerako, han zegoen gizon makuluduna, eserita, itsasoari begira. Tikun-takuna eragiten dioten hanka-paloek, hegal batean, atsedena hartzen. Kendu dizkiot makuluak eta itsasora jaurtitzera nindoala, zera diost gizonak, irribarretsu: “Hara hemen nire gaztetako argazki bizia”.

Zer diozu? Ni zure gaztetako argazkia?

Kristalak garbitzen ikusi zaitudanean, nire Nobierkako (New York) garaia etorri zait burura. Hura sasoia! Egunsentian joaten nintzen lanera eta arratsaldean itzuli etxera.

Autoa ahal nuen lekuan aparkatu, atarira bitarteko distantzia oinez egin, igogailuan 25 solairu igo, bazkaldu, eta balkoira, autoa atetara hurbildu nezakeen ikustera. Bitartean, garbiak zeuden kristalak garbitzeari ekiten nion, zuk bezala, denbora pasa. Lekuren bat libratzen zenean, korrika ateratzen nintzen autoa hurreratzerara. Eta horrela, egunero, afariko ordura arte. Han egin nuen urte mordoan, gutxitan suertatu zitzaidan portalearen aurrean aparkatzea, baina lortu nuenetan, txanpan botila batekin ospatu nuen garaipena. Gaur, kristalak garbitzen ikusi zaitudanean, neure burua ikusi dut, gazteago nintzenean.

Eta ni andreen lanak egiten nenbilelako barrezka ari zintzaizkidalakoan.

Andreen lanak? Ni kristalak garbitzetik bizi izan banaiz hainbat urtez. Politika kontuengatik guardia zibila atzetik nabaritu nuenean, izututa ihes egin nuen Amerikara, arrantzan zihoan txalupa batean. Eskean, gosetuta, noraezean ibili nintzen, harik eta bertigorik gabeko jendea behar zuen enpresa batek hartu ninduen arte, etxe orratzen fatxadak garbitzeko. Zeru-harraskari haietan aurkitu nuen bakea: iraganaz beste egin, problemak eta pentsamenduak eten... beste erremediorik ez daukazu-eta, orainaldia segundo batean uzteak heriotza dakarrenean.

Behin, halere, heriotzatik hurbil-hurbil egon nintzen. Han goian, 129. solairuan, garbitzen ari nintzen kristalaren beste aldean, emakume batek txilaba kendu zuen, eta begien aurrean agertu zitzaidan koadroak zoratu egin ninduen. Emakumea polita ez eze ederra ere bazen. Agerian zeuzkan atalen beste kitzikatzen ninduten ezkutukoek, ezpain mamitsu eta sentsualen beste soineko urdin mehearen azpian dardarka ari zitzaizkion bular mardulek... Ikuskizunak liluratuta, kulunkari jarri zitzaidan artasuna, eta dangaden erritmoan nindoan, sorginduta, amildegirantz.

Ez dakit zelan, baina ez nintzen jausi; edo erori nintzen eta eldarnioak egin zion grabitateari muzin.

Baina urteak ez dira alferrik igarotzen. Orain, Nobierkako zainzuri jostalaria hemen daukat, bare-bare, Dodotisean beratzen. Prostataren handitasunak txitean-pitean txiza egitera behartzen nau. Tamalez, lau tanta baino ez bakoitzean; bestela, kaleko hormak gernuzko pintadekin beteko nituzke, komun publikoak aldarrikatuz. Zoritxarrez, oraingoz, pixoihala janztea da kalera irteteko daukadan aukera bakarra. Baina troxarekin

oinez egitea ez pentsatu erraza denik, gero; robot baten antzean eman behar dituzu pausonak: bizkar hezurra zuzen, eta oinak tatarrez, arrautzak zapaltzen legez, paketearen zarata isiltzeko xedez. Hanka-paluak jendea nahastatzeko erabiltzen ditut, inoren zer esangoak lotu ez diezazkidan zangoak. Makuluekin ikusita, hankak direla arazo uste du jendeak, pixoihalaren aitortza denean benetako sufrikarioa.

Sufrikarioa bai, baina hari esker ezagutu dut inoiz ezagutu dudan pertsonarik miresgarriena: Zaharren Etxeko mojatxo itsusia. Abitu urdinaren azpian ezkutatzen den emakume gaztea hezur eta azal baino ez da, titirik ere ez zaio nabari, kondorduna, herrena, betokerra...; jantziaren kolorean eta buruzapian baino ez dauka Nobierkako beste haren antzik, baina serora honek daukan barre kutsagarriak, gaixoak osatu ez ezik, birusak ere uxatu egiten ditu. Eta ahotsa? Txundigarria. Ahotsaren jainkosa dela esatea, gutxi esatea da.

Dodotisa jartzera etorri zitzaidan gauean ezagutu nuen. Ez zeukan agure zahar baten hankarteak garbitzen hasteko gogorik; ulertzekoa, bestalde. Gaua komunera osteraka galtzeko prest nengoela esan nion, poema bat irakurtzen bazidan pixoihala ez ipintzearen truke. Ados. Santa Teresaren “Nigan bizi ezik bizi naiz” poema irakurtzean zaletu omen zen, bera, poesiaz, eta Machadoren “Ibiltari, bidea ibiliaz egiten da” leituz hartu omen zuen lekaime izateko erabakia.

Poesia zalea ez ezik, poeta ere bazen mojatxoa. Lehenengo gauean irakurri zidan poema bikaina eta mirarigilea suertatu zitzaidan, gaua eldarniozko hodei batean eman nuen-eta, seko lo, komunera altxatu gabe. Gainontzeko gauek ere ezaugarri bera izan zuten. Ez nekien irakurtzen zizkidan olerkiak berez ziren apartak, edo bere ahotsak egiten zituen eder. Egiaztatzeko, poemak idazten hasi nintzen, eta, berak irakurrita, neureak ere ederrak begitantzen zitzaizkidan. Harrezkero, olerkiak idazteko inspirazio bila etortzen naiz Farora, dandarrez; poeta sentitzeko, gauez. Eta zu zertara etorri zara?

Zeuri makuluak ostu eta jabalinak bailiren jaurtitzeko itsasora, baina esan didazun guztia entzunda, ez dut horretarako adorerik.

Adorea bildu, UNEDen izena eman nuenean bildu nuen, orduantxe otu baitzitzaidan nire arbasoaren oihu mututuak zubi honetan egon beharko

zukeela, betiko, ezadostasunaren lekuko: GORA KARLOS ZAZPIGARRENA.

Horrexegatik nahi izan dut Ozaeta jauregira bakarrik etorri.

2015/12/29

Zelan azaltzen diot nik, orain, optikari andreari, kristal bakoitzean nire begiek behar dituztenak baino 3 dioptria gehiago jartzeko?

“Bueno, zera, e, bai, zera, bueno...”

Dena hasi zen erretiratzeari erabaki nuenean. Jubilatuta zeinen ondo biziko nintzen saldu zidaten nire aurretik erretreta hartua zuten lankide kabroi-gezurti-madarikatuek. Zorionaren espejismoa lor zitekeela zioten. Inork ez zidan esan, ongi sentitu aurretik bakardadearen basamortua zeharkatu beharko nuenik. Eta hemen nabil, orain, galduta, egiten dudana guztiari zentzua aurkitu ezinda. Bestela bizi nintzen inork markatutako agenda bete besterik egiten ez nuenean.

Bizimodu hoherantz nindoalakoan nengoen, aurrerantzean denboraren jabe neu izango nintzelakoan, emazteak aurkeztu zidan kontratua ere irakurri gabe sinatu nuen: lehengoz gain, etxeko lanak neuretzeko. Eta orain, hementxe, optimizazioan; alegia, lanik gutxien eginda emaitzarik onena lortzeko ahaleginean.

Adibidez, komunak egunero garbitzen ditudanetik, eseri egiten naiz txiza egiteko; bestela, zipriztinak komun guztian zabaltzen dira eta txiza-hatsa kentzeko, garbitu komuna ostera ere! Punteria kontua zela uste nuen lehen, baina ez da, ez; zenbat goragotik txiza egin, errebotean jauzi handiagoa gertuak; ondorioz, komunaren kanpo-azalera gehiago zipriztindua.

Matxisten iritziz, komuneko tazan eserita txiza egitea artasunaren aurkako bekatu larria da; feministen iritziz, berriz, higienaren aldeko ekintza osasungarria. Zelan begiratzen den da kontua; hori bai, praktika horrekin hasi nintzenetik, emetzen noala esango nuke, zakila zimeltzen nabaritzen baitut, egunez egun.

Kezkatuta, herriko medikuarengana jo dut gaur goizean. Bertsozale amorratua denez, Txirritaren sistema erabili behar izaten dudala buztana ikusteko, esan diot. “Hori baino ez bada, lasai” esan dit berak, “betaurrekoak jantzi eta kito”.

Betaurrekoak izango dira soluziobide, baina zelan esan optikari andreari aparteko dioptriak pitilinari zoom egiteko behar ditudala?

“Bueno, zera, e, bai, zera, bueno...”

Zubian nago. Albo guztietara begiratu dut: inor ere ez. Atera dut motxilatik pixontzia, jaitsi ditut prakak, gero kaltzontziloak, eseri naiz ontzian, eta hor hasi naiz indarka, kakari deika. Momentuko emozioak, justizia egiteko abaguneak, atal biluziek inork ikusteko beldurrak, kakari deika egindako indarrek... edota faktore horien guztien sinergiak ez didate, bada, tentetu txistua?

Hau ezbeharra! Zelan bildu, orain, pintadarako oreka egiteko lehengaiak ontzi berean?

Arin ediren beharko diot problemari soluzioa; horretarako, pentsatzen jarri naiz, ukabilaren gainean kokotsa pausatuta, Rodin-en pentsalaria imitatuz... Halako batean, zer den-eta, hara hor nor datorren: atsotxoa.

“Egunerokoa itzultzen etorri natzaizu Galder” diost, “baina ikusten dudanez, fikziozkoa da. Lastima”.

Bosgarren taldea 2. saria

Ipuinak



Ez ditu hildakoak berpiztuko

Aitor Alberdi

Ez ditu hildakoak berpiztuko

Arratsaldea hasi berri. Iruñako herritar gehienak lanean edo etxean aurkituko ziren. Kaleetan jolasean zebiltzan umeen garrasi eta barreak entzuten ziren herriaren edozein puntutatik; Ikerrek ordea, harresian zaindari egon beharra zuen.

Beste egun normal bat izango zela pentsatuko zuten askok, baina, Ikerrek, bazekien ez zela horrela izango.

—Aitor, esan Iñakiri harresiko ateetara etortzeko —agindu zion Ikerrek hasi berriari.

—Buruzagia atzo goizean atera zen ehizara, jauna —erantzun zion Aitorrek.

—Orduan, esaiozu Besomotzi lau bisitari ditugula, azkar!

Bazetozen lau zaldunak, Iruñako zelai lau eta zabalak zeharkatuz, frankoek aurreko eguneko iluntzean jarri zuten kanpamentutik, zuzenean bertako ateetara. Herritar denek zekiten, Hegoaldeko lurretatik itzultzean berriro ere euskal lurraldeak zeharkatu beharra edukiko zutela, euren lurraldera itzultzeko. Baina, inork ez zuen espero hain hurbiletik igaro eta kanpamentua jarriko zutenik.

—Zer behar duzu oraingoan? Ez esan berriz zure gizonetako bat harresitik erori dela, oraingoan ez dut hanka sartuko —esan zion txantxetan Besomotzek heldu zenean.

Besomotz, Iñaki kanpoan egoten zen bitartean, Iruñako buruzagi geratzen zen gizona zen. Bere titulua, gaztetan Lintzoaingo herritarren aurkako gudu batean, Josu Menditzarraren kontra ezkerreko besoa galtzearen ondorioz eskuratu zuen.

—Ez, ez da hori —erantzun zion Ikerrek aurreko zelaira seinalatuz—. Eta oraingoan ez dut uste txantxetan hartzeko gaia izango denik...

Laukotea, hiru soldaduk eta bitxiz jositako armadura distiratsu bat zerman gazte batek osatzen zuten. Hiru soldaduetako bik, Karlomagno Handiaren inperioaren zutoihal bana zeramaten.

—Zer nahi duzue, atzerritarrak? —galdetu zien garrasika Besomotzek gerturatu zirenean.

Armadura dotorez jantzitako gaztea pixka bat aurreratu eta hitz egiten hasi zen:

—Nik, Roldan komandanteak, nire osaba Karlomagno Handiaren izenean, Iruñako ateak gure armadari zabaltzeko eskatzen dizuet. Gure soldaduak nekatuta aurkitzen dira eta ondo etorriko litzaieke pareta artean atseden pixka bat hartzea. Gainera, gure hornikuntzak agortzeaz daude, seguru nago gure gurdia betetzeko nahiko janari edukiko duzuela eta ordainetan, etxe bakoitzean urrezko txanpon bana banatuko da eta buruzagiari hamar urrezko txanpon emango zaizkio.

—Ez diegu sartzen utziko, ezta? Gure etxeetako janari dena agortuko dute eta gure familiak elikatu beharra daukagu —esan zion Ikerrek Besomotzi tonu baxuan.

—Ez, ez diet sartzen utziko. Ez, Iñaki kanpoan den bitartean —erantzun zion honek Ikerri—. Sentitzen dut Roldan! Baina gure buruzagia kanpoan da eta agintean ni nagoen bitartean, ez dira ateak zabalduko. Arazo ugari ekarriko luke guretzat!

—Eta bi urrezko txanpon banatuz gero familia bakoitzari? —tematu zen Roldan

—Ezet! Ez dugu txanpon beharrik, ez ditugu ateak irekiko.

—Zabaldutazue ateak! —hasi zen garrasika gaztea, pazientzia galtzen hasita.

—Ez duzu ulertzen zer den ezetza? Alde hemendik! —haserretu zen Besomotz.

Hori esan orduko, gazteak haserre, bere ezpata atera zuen zorrotik eta harresiko gizonak seinalatuz garrasika hasi zen, bertakoak iraindus. Harresiko

gizonetako batzuk, irainak entzutean, arkuak tenkatu eta Roldani gorputza geziz zulatzeke gertatu ziren, baina, Besomotzek eskuaren keinu batekin gelditzeke agindu zien.

—Ez al dakizue zein den nire osaba? Karlomagno Handiaren armadaz hitz egiten ari gara! Frankoen inperioaz! Ez dituzue ateak zabaltu nahi? DAMUTUKO ZARETE! Basati horiek! Atea botako dugu! —gero eta ozenago garrasika hasi zen eta azkenean kanpamentu aldera itzuli eta alde egin zuen haserre, beste hiru zaldunak atzetik segika zituela.

—Ume moko hori! Ez dira Iruña erasotzen ausartuko. Ez daukate setio batentzako nahiko denbora, Frantziara itzuli beharra daukate! —jarraitu zuen garrasika iruindarrak guztiz haserre.

—Soldaduei alertan jartzeko aginduko al diet? —galdetu zion Ikerrek.

—Ez, ez du merezi, seguruenik bihar goizerako aldeta egongo dira —erantzun zion Besomotzek lasaitzen hasiz.

Arratsalde osoan ez zen mugimendu gehiagorik igarri kanpoko kanpamentuan. Besomotzek esan bezala denak berdin jarraitu zuen, hurrengo goizerako aldeko ziren. Baina, gauean, Iker, oraindik eraso bat jasotzeko beldurrez, oso berandu arte harresian geratu zen.

Gauerdi inguruan, loak hartzen zegoela, bat-batean guztiz esnatu zen. Urrunera, jende asko mugitzean sortzen den zarata entzutea iruditu zitzaion, baina, ez zen bere irudimena, benetan entzuten ari zen. “Zertan ote dabilta ordu honetan?” pentsatu zuen.

—Iker! Zuk ere entzuten al duzu zarata hori? —galdetu zion orduantxe dorreetako batean zegoen soldaduetako batek.

—Bai, entzuten dut! —erantzun zion berak.

—Gauean martxan jartzen hasi direla uste al duzu? —galdetu zion berriz.

—Ez dakit.

Gaueko iluntasunean, zelai aldera begira jarri zen orduan, hasieran ez zuen ezer ikusten, baina, begiak iluntasunera ohitzen joan ahala, gehiago ikusten hasi zen. Zelaian mugimendua igarri zuen. Itzal haundi bat harresirantz mugitzen

ari zen, eta itzal hori zer izango zen igartzen saiatzerakoan, gizon multzo handi bat zela konturatu zen, denak formazioan harresitik pauso batzuetara aurkitzen ziren.

Bat-batean, bere kezka guztiak argitu ziren. Guztiz beldurtu zen eta horren ondorioz bihotz taupadak azkartzen hasi zitzaizkion eta arnasestuka hasi zen. Amets gaizto batean egongo balitz bezala. Frankoen formazioko ilarak mugitzen hasi ziren. Lehenengo, denek, babes modura une berean ezkutuak altxatu zituzten eta atzeko lehenengo hiru ilaretako gizonak, arku bana atera, gezi bana arkuan jarri eta soka tenkatuz harresira apuntatu zuten. Harresian aurkitzen ziren batzuk gertatzear zegoenaz konturatuz, euren tokietara abiatu ziren baina, eraso bat jasotzeko gertatu gabe zeuden, gehienek armadurak jantzi gabe edo armak alde batera utzita zeuzkaten, kontuan hartu gabe harresian egon beharko zuten zaindarien erdiak baino gehiago euren etxeetan lo egongo zirela.

—Jo ezazue alarma! ALARMA! —hasi zen Iker garrasika.

Baina berandu zen dagoeneko, erasotzaileak dagoeneko askatuak zituzten geziak eta bazetorren gezi zaparrada zuzenean euren gainera...

Kolpe isil bat entzun zuen orduan, eta une horretan gezi baten masta bularraldean sartuta zuela ohartu zen. Une labur batean dena isilik gelditu zen eta Iker geziari begira gelditu zen. Bularraldeko mina menderatu eta arnasa hartzan saiatu zenean, odol eztula atera zitzaion eta hankak indar gabe gelditzen hasita belaunen gainean erori zen. Dena lausotuta ikusten hasi zen, baina berriro euren gainerantz zihoazen geziak ikusteko ahalegin handirik egin beharrik ez zuen izan.

2. KAPITULUA

Goiza bukatzear zegoen eta eguzkia jadanik berotzen hasia zen. Unai, ehizatu berri zuen basurdea arrastaka zeramala, basoko larreetatik atera eta bere lagun taldea aurkitzen zen gailurrerantz abiatu zen. Ehizatzen zuten bosgarren

basurdea zen eta gainera beste hamar bat ahate ere akabatu zituzten beherago aurkitzen zen erreka batean. “Afari ederra edukiko dugu gaur etxean” pentsatu zuen “Nekane poztuko da, eta bada ordua egunen batean Joseba ere ehizara ekartzeko, azkar hazten ari da...”

—Bada ordua heltzeko! —esan zion Iñakik irribarrez—. Oraintxe zure bila joatekotan ginen, Iruñara zu gabe itzuliz gero zure emazteak hilko gintuen!

Iñaki, edo Hirupago, askok ezagutzen zuten bezala, bere ezkutuan hiru pago marraztuta aurkitzen zirelako, Iruñeko buruzagia zen. Zuhaitz bat bezain handi eta indartsua, baina, abiadura aldetik zuhaitz baten kontrakoa, oso azkarra.

Basurdea gurdian sartu eta denak euren herrirantz abiatu ziren. Gerturatzen joan ahala kea ikusten hasi ziren.

—Guretako bazkaria gertatzen egongo direla uste al duzue, mutilok? —galdetu zuen buruzagiak txantxetan.

Baina gerturatzen joan ahala ez zela horrela izango ohartu ziren. “Zer demontre?” pentsatu zuen bere baitan Unaik, Iruñara gerturatu ahala ke gehiago zegoela ikusiz.

—Zer gertatu ote da? —Iñaki larritzen hasia zen.

Bertara heltzerakoan, denak zur eta lur geratu ziren. Etxeak, denak erreta zeuden, askori oraindik kea zerien. Harresiaren zati bat botata zegoen eta kaleetan sartzean nonahi hildakoen gorputzak zeuden. Gorpu batzuk suaren ondorioz belztuta eta beste batzuk ordea, geziak gorputzean sartuta, gorputz-adarrak ebakita edo ezpataz eta lantzaz egindako zauri handi eta itxusiz beteak zeuden.

“Nekane!”, “Joseba!” gogoratu eta beldurtuta, ehizatik berarekin itzulitako lagunak atzean oraindik bizirik zeuden pertsonen laguntzen utziz, bere etxea zegoen kalerantz abiatu zen korrika. Etxeko atea egon beharko litzatekeen tokira heltzean, bertan sartu eta zuzenean bere emazte eta semearen bila joan zen. Ez zuen biak aurkitzeko denbora asko behar izan. Logelako lurrean aurkitzen ziren biak, eta bertara sua heldu ez bazen ere, sutearen kearen ondorioz itota zeuden. Hori ikustean, bien gorputzen ondoan lurrera erori eta negarrez hasi zen, bere emaztea ezagutu zuen egun hartaz eta bere semearekin

errekan jolasten pasatutako egunez oroitzuz. Bertan, une luze bat oroitzapenetan murgilduta igaro ondoren, etxean sartu zen gizon baten pauso astunak igarri zituen, zuzenean berarengana hurbiltzen eta esku bat bere sorbaldan jartzen.

—Gaur gauean izan dela erasoa azaldu dit borrokatik bizirik ateratzea lortu zuen gizon batek. Alarma jo zutenerako erasoa hasia zen. Gure soldadu gehienak etxeetan aurkitzen ziren eta atera zirenerako erasotzaileak herri barruan, kaleetan zehar etxeei su emanez eta kanpoan aurkitzen zuten edonor hiltzen zebiltzala ere azaldu dit. —azaldu zion Iñakik—. Inguruko herrietara laguntza eskatzera joan eta erasotzaile horiei merezi dutena ematea erabaki dut. Bazatoz gurekin? Arratsaldean abiatuko gara. Bi gizon bidali ditut dagoeneko Urrotzera eta gu Zubirira joango gara. Azkar ibili beharra daukagu.

—Zeintzuk izan dira? —galdetu zuen Unaik oraindik negarrari eutsi ezinik.

—Hegoaldetik euren lurretara itzulian zihoazen frankoak. Esan didatenez erasoa Roldanek bideratutakoa izan da.

—Banoa zuekin —esan zion erabakia hartuz eta lurretik altxatuz—. Baina, lehenengo Nekane eta Joseba lurperatu behar ditut.

—Gertatu eraman beharrekoa eta abiatu zaitez plazara, hantxe elkartuko gara joango garenak.

3. KAPITULUA

Esan bezalaxe, erasotik bizirik atera ziren eta borrokatzeko ondo zeuden gizon denak Zubirirantz abiatu ziren. Emakumeak, umeak eta oso zauriturik zeudenak, berriz, Iruñian bertan gelditu ziren, suak gutxien kaltetutako etxeak konpontzen edo erretako etxeen lekuetan berriak eraikitzen.

Iluntzerako, Zubirira heldu ziren. Bertako buruzagia, Urko, txikitatik Iñakiren lagun mina zen. Denek zekiten bezala, borrokazalea ez bazen ere, oso argia zen. Iñakik gertatutakoaren berri eman eta frankoen aurka laguntzeko eskatu zionean, bere gogoz kontra izan bazen ere, azkenean bere lagunari

laguntzea erabaki zuen.

—Zubiri eta inguruko borrokalari guztiak zure agindupean daude orain lagun —azaldu zuen Urkok.

—Eskerrik asko, Urko. Kontuan izango dugu zure laguntza eskuratutako ondasunak banatzerakoan —erantzun zion beste buruzagiak.

—Iñaki, Karlomagnoren armadari eraso behar badiogu, Ion Odolzaleri ere laguntza eskatu beharko genioke —gomendatu zion zubiritarrak.

—Odolzaleri? Lintzoaingo herritarrak betidanik izan dira Iruñako etsaiak! —erantzun zion Hirupagok.

—Bada ordua zuen artean bakea egiteko. Gainera, kanpoko armada bat euskal lurretan aurkitzeak lagunduko du zuen arteko areriotasuna murrizten.

Hori esan ondoren, Urkok bere borrokalari guztiei gertatzeko agindua eman zien eta bisitariei bertan gaua pasatzeko tokia eman zien.

Hurrengo goizean, denak eguzkia atera orduko Lintzoaingo bidean zihoazen. Bertako basoetan zehar, mendietara gerturatzen ziren heinean, malda astunagoa egiten joan zitzairen. Lintzoaingo lurretan sartu eta segituan bi gizon azaldu zitzaizkien. Urkok, bake giroan zihoazela azaldu eta Ionengana eramateko eskatu zien baina, hauek, euren buruzagiarengana Iñaki, Urko eta beste lau gizon bakarrik joan zitezkeela eta gainerako guztiak Lintzoaingo lurretatik kanpo geratu beharko zirela azaldu zien. Joango zirenak hautatzean, Iñakik gainerako gizon guztiei bertan deskantsatzen gelditzeko agindu eta lintzoaintarren atzetik abiatu ziren.

Urte askotan etsaienak izandako basoak zeharkatu eta zelai zabal batzuetara ateratzean lehenengo etxeak ikusten hasi ziren. Lintzoain, baso zabalez inguratuta eta muino batzuen artean ezkutuan geratzen zen herri txiki bat zen, momentuan zuen buruzagiari esker lurralde ugari eskuratzen ari zena. Bertakoak, asko ez baziren ere, borrokalari oso onak eta isilak zirelako ziren ezagunak, baina, urte askoan, Iruña euren menpe hartzen saiatu eta lortu ezinak, gainerako herri eta auzoek beraiei zieten beldurra ahulduta zegoen.

Herriko plazara heltzean, bertako gizonetako bat Ionen bila joan zen eta

bestea taldea zaintzen gelditu zen. Bertako herritarrek, jakin minarekin, poliki-poliki etorri berrien inguruan pilatzen hasi ziren.

Bertako buruzagia heltzean, honek irribarre handi batekin jaso zituen bisitariak, denek jakin arren Iñaki eta bere artean gorroto handia zegoela.

—Zertara datoz inguru hauetako bi buruzagi garrantzitsuenak? —galdetu zuen Odolzalek—. Ez al da tartean hemendik gertu igaro den frankoen armada aurkituko?

—Ondo informatuta zaudela ikusten dut —erantzun zion Iñakik.

—Bai, beno, atzo arratsaldean azaldu zidan dena Iruñan aspalditik kokatuta nuen espioietako batek, zuei itxaroten aspertzen hasia nengoen —azaldu zuen bertako buruzagiak—. Baina, frankoen aurka joatea tentagarria iruditzen bazait ere, ez naiz zuen ondoan borrokan besterik gabe jarriko. Ez horixe! Agure batek esan ohi zuen bezala, mendekuak odol gehiago ekarri besterik ez du egiten. Mendekatzeak ez ditu Iruñan hil zituztenak berpiztuko. Zirkulu bat nahi dut!

“Zirkulua”, euskal lurraldeetan oso zabalduta zegoen tradizio bat zen. Inportantzia handiko gaietzat konponbidea aurkitzeko, lurralde gehiago eskuratzeko edo apustuak egiteko erabiltzen zen. Lurrean hamar pausoko zabalerako zirkulu bat egiten zen eta haren barruan bi txapeldunen artean egiten zen borroka zen sonatuena. Borrokalari bakoitzak berak nahi zuen arma eramane zezakeen, eta lehia hasi aurretik, ezkutu bat jaurtitzen zen bakoitzak bertara eramandako zein armarekin borrokatuko zuen zehazteko. Bi borrokalarietako bat hiltzean amaitzen zen lehia eta bietako bat, lehia amaitu aurretik, zirkulutik kanpora ihes egiten saiatzen bazen, galtzaile izendatu eta bertan hiltzen zen.

—Zoratu zara! —erantzun zion Unaik—. Eta zer jokatu nahi duzu?

—Nik irabaziz gero, Iruña eta inguruko auzoak, bere lur guztiak barne, lintzoaintarronak izatera pasako dira. Eta zuek irabaziz gero, ni eta nire borrokalari guztiak zuen agindupean geldituko gara frankoak garaitu arte —proposatu zuen Odolzalek—. Ondo iruditzen zaizu? Nire izenean borrokatuko duen txapelduna Josu Menditzarra izango da.

—Ondo da. Hau dena oso aurreikusita zenuela konturatzen naiz —esan zion Iñakik erantzun gisa— Nik neuk borrokatuko dut Iruñaren izenean, honekin berehala bukatu beharra daukagu, Karlomagno harrapatu beharra dago.

“Zirkulua” egitea erabaki eta segituan, pare bat pertsona zirkulu bat margotzen hasi ziren herriko plazan. Hortik denbora gutxira, Josu azaldu zen. Bere goitizena bera bezalako gizon batentzat oso aproposa zen, inoiz askok ikusi izandako gizon altuena eta zabalena baitzen, hankako behatzetatik leporaino giharrez betea. Berarekin bi eskuko ezpata luze eta handi bat ekarri zuen. Iñakiren aurrean gelditu, honi mespretxuzko begirada bat bota eta zirkulu erdirantz abiatu zen.

Iñakik, bere gerrikotik ezpata motza atera, hiru pago marraztuta agertzen ziren ezkutua ezkerreko eskuan ondo jarri eta atzera begiratu gabe, zuzenean bere etsaiaren parera joan eta bertan kokatu zen.

—Zorte on, lagun! —esan zion garrasika Unaik.

—Ez dut beharrik izango! —erantzun zion besteak berriz.

Bi txapeldunengana gizon bat gerturatu eta armak hautatzeko ezkutua jaurti zuen. Ezkutua Iñakik hautatutako aldearekin gorantz erori zen, baina, honek, berak eramandako armarekin geratzea erabaki eta borroka hasteko gertatu zen.

Hasteko seinalea emandako momentuan Josuk, bere ezpata handia altxatuz, mugimendu azkar batekin Iñaki bitan banatzen saiatu zen, baina konturatu orduko, bestea jadanik, hasieran zegoen lekutik aldeta zegoen, bere eskuman kokatuz eta ezpata motzarekin Josu izterrean zaurituz. Menditzarra oso handia eta indartsua zen baina, horrelako ezpata astun bat erabiltzeak, bere ekintzen mugimenduak asko moteltzen zituen eta hurrengo mugimenduak errazago aurreikusten laguntzen zion horrek iruindarrari.

Bi aurkariak, zirkuluaren barnean biraka hasi ziren, batak bestearekin noizbehinka ezpatakadak gurutzatuz. Halako batean, Josuk, indar handiarekin goitik beherako kolpe bat jaurti eta Iñakik justuan, ezkutua buru gainean jarriz, bere burua bitan zatitzera zihoan kolpea gelditzea lortu zuen baina, kolpearen

eraginez, oreka galdu, lurrera erori eta ezpatak eskuetatik ihes egin zion.

Iñakik, bere bidean zihoan eta borroka amaiaraziko zuen kolpe berria aurreikusiz, lurrean bira emanez kolpea saihestea lortu zuen, baina bere ezpata aurkitzen zen tokitik urrundu eta guztiz desarmatuta geratu zen. Ia bi metroko gizona, aurpegian irribarre handi batekin, erritmo motelean berarengana gerturatzen hasi zen, zalantzarik gabe borroka irabaziko zuelakoan. Distantzia labur batera heltzerakoan, ezpata buruaren gainera jaso eta azkenengo kolpea emateko gertatu zen. Ikusle guztiek, gertatzeaz zegoena imajinatu, arnasari eutsi edo beste alde batera begiratu zuten.

Baina, inork espero ez zuena egin zuen Iñakik. Zuzenean, tximista bezain bizkor, Josuren aurka abiatu zen, makurtuz eta ezkutua bere parean jarritz, lintzoaintarrari sabelean sekulako kolpea eman eta lurrera bultzatu zuen. Kolpearen ondorioz, Josu lurrean aurkitzen zela aprobetxatuz, Iñaki bere ezpata motzaren bila joan zen. Heldu eta hartzea lortu zuenerako bere aurkaria ezpataren laguntzarekin lurretik altxatzen saiatzen ari zen, eta segundorik galdu gabe, berarengana abiatu eta ostiko bat emanez, berriz, lurrera erorarazi zuen. Ondoren, ezpata motza heldulekuraino bularraldean sartu zion.

Ikusle denak, aho zabalik gelditu ziren. Inork espero ez zuena gertatu berri zen. Iñaki, arnasestuka, seguruenik urte luzez inguruko gerlaririk onena izandakoaren gorputz hilaren gainean zegoen, bera ere, horrelako egoera batetik bizirik nola atera zen pentsatzen saiatzen.

—Egia esan, ez nuen emaitza hau espero... —hasi zen Ion hizketan penatuta, Iñakirengana hurbilduz eta bere aurrean belaunikatuz—. Zorionak Iñaki! Esan bezala Lintzoango gizon guztiak zure agindupean geratuko gara, frankoei eskarmentua eman arte. Gainera, etorri zaretenean ez dizuet interesatu ahal zaizuen gauza bat esan. Bart, lau esploratzaile franko bahitu genituen. Azaldu digutenez, Karlomagno Orreagako igarogunea zeharkatuz bere lurraldeetara itzultzea planeatuta dauka, eta Orreagan bideak oso zabalak ez direnez, bere armadak bidean zehar zutabe batean mugitu beharra izango du, eta modu horretan, armadaren atzealdetik aurreko aldera, zaldi gainean, denbora asko behar izango dute. Armadaren aurrealdean Karlomagno soldadu onenekin

aurkitzen da, eta atzealdean berriz Roldan eta bere armadaren zatia aurkitzen dira. Eta azkenik, eurak euren lurraldetik hain hurbil ez dute eraso bat espero izango, esploratzaile gutxi bidali dituzte eraso bat aurreikusi ahal izateko, eta aurkitu genituenak lo zeuden, kezkarik gabe, azkena esnatu eta lepoan labana bat zuela konturatu arte.

—Kontuan izango dut hori euren aurka joaten garenean, baina lehenengo gure gainontzeko gizonekin elkartu behar gara —erantzun zion Iñakik.

Eta inork ezer gehiago esan gabe, bertako borrokalari guztiak armen bila joan, gero berriz denak plazan elkartu eta Iruña eta Zubiriko gainontzekoekin elkartzera joan ziren. Elkartu ondoren, euren bideari jarraitu zioten.

Iluntze aldera, Auritzera heltzerakoan, Urrotz eta Agoitzera gizon gehiagoren bila bidalitakoekin eta eurekin zetozenekin elkartu eta zuzenean Orreagara abiatu ziren, frankoek Auritz baino aurrerago zeukaten kanpamentua atzean utziz.

4. KAPITULUA

Gau osoa jardun zuten hurrengo goizeko erasoa gertatzen. Batzuk, maldan behera jaurtitzeko harri handiak biltzen ibili ziren, beste batzuk, geziak egiten eta gainontzekoak euren armak zorrozten. Nahiz eta gizon batzuk oso urduri egon, gehienak kanpotarrei merezitakoa emateko gogo handiz aurkitzen ziren.

Erasorako bildutako herri bakoitzeko buruzagi denak ere bildu ziren, erasoa landu ahal izateko. Urkok proposatutako plana errazena eta egokiena iruditu zitzaaien denei: erasoa armadaren atzealdearen aurka bakarrik izango zen. Hasieran mota guztietako jaurtigaiaak jaurtiko zizkieten aurkariei, ondoren, arkulari ez ziren beste borrokalari guztiek maldan behera frankoen gainera kargatuko zuten. Ion Odolzalek, Lintzoango gerlariak Karlomagnoren gainerako armadaren eta erretaguardiaren artean jarriko zituen, gainerako franko guztiek erasoa gertatzen zen lekuarekin konexiorik eduki ez ahal izateko

edo bidalitako errefortzuak pasatzen ez lagatzeko. Urko, Zubiriko borrokalariekin frankoen gurdietako erreserbak, janaria eta armak lapurtzera joango zen eta Iñaki, gainerako gizonekin (Iruña, Urrotz eta Agoitzekoekin), erasoan bizirik geratzen ziren aurkariak hiltzen geldituko ziren.

Hurrengo goizean, denak euren lekuan ezkutatuta, aurkarien armadaren zati handiena euren aurretik igarotzen ikusi zuten. Soldaduz betetako zutabea amaiezina zela zirudien, arratsalde hasiera arte itxaroten egon ondoren, zutabearen amaiera ikusi eta gizonen artean harriak botatzeko prest egoteko eta arkuak tenkatzeko agindua zabaldu zen.

—Gertu gizonak? —galdetu zuen Iñakik azkenengo aldiz, eta erantzun bat emateko denborarik eman gabe, erasotzeko agindua eman zuen—, ERASO!

Zuhaitz artetik, gezi ugari atera ziren frankoen aurka eta behien neurriko harriak bota zituzten maldan behera. Erasotuak, geziek lehenengo pertsonak eraitsi arte konturatu ere ez ziren egin erasotuak izan zirenik, eta bigarren gezi zaparrada gainera erori zitzaientzako kaosa zabaltzen hasi zen.

—GOAZEN, GERLARIAK! —hasi zen garrasika Iñaki, bere gizonak animatzeko—, AURRERA!

—MENDEKUA! —esan zuen garrasika Unaik—. HIL ZITUZTENENGATIK!

Unai maldan behera korrika hasi zen zuzenean etsaiengana, eta atzetik, beste gizon guztiek jarraitua zioten.

—MENDEKUA! —garrasi egin zuten gainerako guztiek.

Euskaldunak, itsasoko olatu handi baten antzera, basoetatik atera eta zuzenean kanpotarren gainera abiatu ziren. Soldaduek nahasian zituzten bat-batean etorri zitzaizkien jaurtigaiek sortutako sorpresa eta horrelako erasotzaile kopuru handia euren gainera zihoala ikustean sortutako beldurra eta horrek gehiengoa ihesean jarri zuen. Baina, zeramatzaten armadura astunen eta goiz osoa ibiltzen pasatzeak sortutako nekearen erruz, erasotzaileek erraz harrapatzea eta hiltzea ekarri zuen. Egundoko sarraskia gertatu zen!

Unai aurrera zihoan, han eta hemen etsaiak hilez. Iheslari bati bizkarrean aizkora kolpe bat eman eta lurrera bultzatu zuen; ondoren, beste bati beso bat ebaki zion. Bere atzetik beste gizon ugari zihoazen berak hiltzen ez zituenak hiltzen. Iruña erre zutenak hiltzea gustatuko zitzaiokeen arren, ez zen hori berak nahi zuena. Berak mendekua nahi zuen. Eraso agindu zuenari bizia kentzea, hain zuzen ere.

Bere bila hasi zen. Roldan. Iñakik esan zuenez, hori zen bere izena eta dudarik gabe bertan aurkitu ahal izango zuen armadurarik bikainena eramango zuen eta gizonen inguratuta egongo zen. Orduan, formazio bikain batean, lantzak aurrerantz zuzenduta zituzten gizon batzuk begiztatu zituen, eta formazioaren barruan aginduak ematen ari zen gizon gazte bati erreparatu zion. “Azkenean aurkitu zaitut” pentsatu zuen bere baitan. Zuzenean formaziorantz abiatu zen “Hireak egin dik” behin eta berriz errepikatuz.

Oraindik bizirik geratzen zirenak, formaziora gehitu edo bestela gainerakoak bezala hilda bukatzen zuten. Formaziorantz gerturatzen joan ahala, formazioa apurtzen saiatzen ari ziren ehizako lagun batzuk lantzez zeharkatuta hiltzen ikusi zituen.

Formaziora gerturatzean lantza baten punta justuan ezkutuarekin saihestea lortu, bere jabeari lepoa moztu eta bere burua airean bidaltzea lortu zuen. Ondoren, zuzenean formazio barruan sartu, Roldanen gainera bota eta MENDEKUA! oihukatuz honi aizkoraz burua bitan zatitu zion. Gainerako guztia azkarregi igaro zen. Berak formazioan sortutako zuloa aprobetxatuz, bere taldekoek formazioa guztiz apurtzea lortu zuten, baina, berarenganantz zetorren kolpea beranduegi ikusi zuen eta ezpataren heldulekuarekin buruan eman zioten kolpe batekin lurrera erori eta odolez blai eginda, jaiki ezinda gelditu zen.

Odolzalek arrazoi zuen aurreko egunean mendekuak odol gehiago bakarrik ekartzen zuela esatean. Roldan hiltzeak ez zituen bere emaztea eta semea berriro ere bizitzara itzuliko. Ez ziren inoiz itzuliko.

Gizon bat bere aurrean gelditu zen. Bera hiltzera zihoala pentsatu zuen Unai hasieran baina, ikusten zuena argitu zitzaionean, Iñaki zela konturatu zen.

—Unai, jaiki zaitez! Eskerrak oraindik bizirik zaudela, kezkatuta nengoen —esan zion hark jaikitzen lagunduz—. Karlomagnok zalditeria bidali du gure aurka, eta Lintzoaingoek ez dut uste denbora askorik jasango dutenik, Zubirikoak dagoeneko gurdiak hustu dituzte, alde egin beharra daukagu...

Baina, bat-batean, Iñakiren tripatik ezpata baten punta atera zen, eta intziri bat bota eta lurrera hilda erori zen.

—Ez dago gudu bat baino leku hoberik gorroto duzun taldekide bat hiltzeko —esan zuen Ionek pozik, ezpata Iñakiren hildako gorputzetik ateraz —Sentitzen dut, baina, gaztetatik egon naiz Iruña eskuratzeko irrikan; berak bizirik jarraitu bitartean ez nuen hori lortuko...

Unai, mugitu ezinik eta laguntza eskatzeko indarrrik gabe, bertan Ionek ezpata lepoan jartzen zion bitartean begira gelditu zen.

—Zu bezalako gizon gehiago beharko nituzke, baina, ezin dut nire buruzagitzako postua jokatu zu bizirik utziz.

Hori esan orduko ezpatarekin lepoaren kontra indarra egin eta eztarria zabaldu zion. Unai lepoan hozkada hotz eta mingarri bat sentitu zuen hasieran, bere odolarekin itotzen hasi zen, azkenik gorputzeko gainerako min guztiak sentitzeari utzi zion eta inoiz esnatuko ez zen ametsean murgildu zen.

Bosgarren taldea 3. saria

Ipuinak



Zutaz harro

Miren Txurruka

Zutaz harro

Gaztea izatea ez da erraza, ondo daki hori Malenek. Nagusiek beti gogorarazten diote bizitzako garairik ederrena bizitzen ari dela, baina ez dute neska konbentzituko munduko argumenturik aproposena izanda ere. Aurreko batean izan nintzen berarekin hizketan eta egunero bezala aho bete hortz utzi ninduen.

Malen mallabiarra da, familia onekoa, ezaguna herrian. Umea zenean neska alai eta argia zen. Ez zitzaion etxean gelditzea gustatzen eta kirol guztiak maite zituen. Berdin zitzaion soka saltoa edo futbola, txakurra tentatu eta korrika irtetea zein ezkutaketan jolastea. Neska eta mutilen laguna zen, aitona-amonak guztiak agurtzen zituen eta plazako okindegira ogia erostera jaisten zen bakoitzean, gozoki edo antzerako zerbaitekin itzultzen zen.

Baina denborak aurrera egin eta gauzak aldatu egin ziren. Nerabazarora istean garai berri bat hasten da, emozioz betea, gogorra askotan. Malenek bazuen bere barnean inori azaldu ezin zion sentimendu bat, lagunak mutilei buruz hitz egiten zutenean agertzen zena. Mutilak bere lagunak ziren, gelakideak, multikiroleko aurkako taldeko jokalaria... baina ez zituen bere lagunak bezala imajinatzen. Haiei buruz hitz egitean ez zuen grina berezirik nabaritzen.

Eskolan, kalean zein etxean *“la edad del pavo”* aipatzen zuten, hormonak gora eta behera. Nahastuta sentitzea normala zela esaten zuten; beraz, zertarako arduratu? Bi arazo bakarrik zituen, gaia irtendakoan izandako elkarrizketa luze aspergarriak irribarre batekin jasatea eta lagunak galderen aurrean erantzutea. Noizbait kritikaren bat jasotzen bazuen ez entzunarena egin edo barrearekin erantzuten zuen, axolako ez zitzaion plantak eginez.

Nerabezaroan desberdina dena ez da onartzen. Gure burua eta nortasuna ezagutzen hasten gara, baina kontraesankorra dirudien arren patroiz batzuen

arabera jarduten dugu. Nola esan 13 urteko neska talde bati kontrako iritzia duzula, egin dutena gaizki dagoela? Gerra baten sartzea bezalakoa da. Horregatik bi aukera daude; zure nortasuna defendatu eta lagun gabe amaitzea, kritika guztien jomuga zarela, edo beste guztiak bezalakoa izan eta taldean onartua izaten jarraitzea.

Hirietan agian ez da hain arriskutsua nerabezaroaren patroiei aurka egitea, baina herri txiki batean amaierarik gabeko kobazulo batean sartzea bezalakoa da. Horregatik Malenek aurrera egin zuen, buruko nahastea aldean zeramala. Lagun batzuekin oso ondo konpontzen zen, Nekanerekin batez ere; ez ziren ezertarako ere banatzen.

Bigarren Hezkuntzan asko ikasten da. Bi sexuen arteko harremana hobetzen da hein handi batean, generoek bananduta jarraitzen duten arren. Malenek ez zuen ulertzen bere adinekoek mutilen aurrean naturaltasunez jokatzeko zuten lotsa. Berari berdin zitzaion mutil baten aurrean aldatzea, azken batean bere lagunak baitziren.

Batzuetan lagunak bere kontra jartzen ziren, eta Nekane zen benetako lagun bezala har zezakeen bakarra. *Marimutil* ospea hartu zuen, eta are gehiago ilea belarrietaraino moztu zuenean. Etxera negarrez itzultzea ohitura bihurtu zen urte hartan.

Eskerrak Nekane zeukala. Edozer gertatuta ere, berarekin kontatu zezakeen, telefonoz edo aurrez aurre hitz egiteko, barrua husteko. Ostiral arratsalde batez Gaztelekuko gela batean hizketan ari zirela, Malenek urdailean zitzada bat sentitu zuen. Konturatu gabe Nekanerengana hurbildu eta ezpainenetan muxu eman zion. Begiak zabaldu aurretik konturatu zen egindakoak ondorio garratzak izango zituela, baina Amaia eta Leire atletik begira ikusi zituenean benetan larritu zen.

Nekane zutitu eta ea zertan zebilen galdetu zion, nahasturik. Atean zeudenak zur eta lur zeuden eta ez zekiten zer esan. Malenek bere berokia hartu eta bi lagunen artean pasaz korrika alde egin zuen etxera. Asteburu osoa pasa zuen etxean sartuta, Nekanerentzat hitzak topatu nahian.

Hurrengo asteko lehen egunak etxean pasa zituen, “gripea” zela eta.

Bazekien eskolara itzulitakoan galdera sorta luze bati erantzun beharko ziola eta txutxu-mutxu guztien ardatz izango zela. Eta okerreana, oraingo honetan ez zuela Nekaneren laguntza izango. Bost egun haietan lo ugari egin zuen, ametsetan gertatutakoa ahaztuko zuen esperantzaz.

Ekainaren 14 hura ez zuen sekula ahaztu. Eskolara iritsi zenetik irten arte begi guztiak beragan josita izan zituen. Nekanerekin hitz egiten saiatu zen, baina honek ez zuen aurpegira begiratzeko adorerik izan, eta beste alde batera joaten zen. Etxera iritsi eta negarrez pasa zuen arratsaldea, kontsolatu ezinik.

Kurtsoko azken egunak oso txarrak izan ziren. Lagunekin zuen konfiantza galdu eta oso deseroso sentitzen zen, ez zuen hitz egiteko inor topatzen eta irakasleak ezertaz konturatzen ez zirela zirudien. Seguruenik, irakasleren bat jabetuko zen Maleni zerbait gertatzen zitzaiola, baina garrantzirik gabeko kontua zela uste izango zuen.

Kolpe gogorrena udako oporrak hasi eta astebetara izan zen. Amaiak etxera deitu eta arratsaldean gelditzeko esan zion, aspaldi ez zela lagunekin kalera irteten. Udaletxeko arkupeetan gelditu eta lagunak eskolako patiora joan ziren. Malenek bazekien zerbait gertatuko zela, Amaia nekez arduratzen baitzen ingurukoez, baina bakarrik egoteaz nazkatuta zegoen eta bere txikitako taldea berreskuratu nahi izan zuen. Hurrengo minutuetan entzun zuenak, ordea, bere asmoak bazterrarazi zituen. Amaiak koadrila osoaren izenean hitz egin eta Malen taldetik kanporatu zuen, neskak gustatzen zitzaizkionez, bere aurrean deseroso sentitzen zirela argudiatuz. Nekanek ez zuen tutik esan arratsalde guztian.

Lagunak izaten jarraituko zutela esan zioten, txikitatik elkar ezagutzen baitzuten. Baina gertatutakoaren ondoren dena desberdina izango zela, eta bere aurrean lehengo gauzak ezingo zituztela egin leporatu zioten, muxu ematea delitua izan balitz bezala. Malenek denari baietz esan zion, arratsalde hura amaitzeko gogoz. Lagunak galdu zituen eta ez zen sekula gehiago haiekin egongo.

Uda hartan liburu ugari irakurri zituen eta hilabete eta erdi oporretara joan


zen gurasoekin. Amari gertatutakoa kontatu eta lasai egoteko esan zion, uda ostean egoera baretuta, berriz ere lagunengana itzuliko zela. Amarekin zuen harremana nabarmen sendotu zen denbora-tarte horretan.

Abuztuko azken astean, Nekaneren mezu bat jaso zuen. Berarekin egon beharra zuela eta ahalik eta azkarren gelditzeko eskatu zion. Elkartu zirenean, herritik kanpo zegoen parke batera joan eta bata bestearen ondoan jarri ziren. Nekanek barkamena eskatu zion gehien behar zuen momentuan ez laguntzeagatik, gertatutakoa iraganean geldituko zela eta ez arduratzeko. Hala ere, argi utzi zuen berak mutilak gustuko zituela. Malenek txunditurik dena entzun eta onartu zuen, esperantza txiki bat bere barruan pizten zelarik. Bere benetako laguna, gertatutakoarekin erabat lotuta egon arren, laguntzeko prest zegoen.

Herrian gripea baino azkarrago zabaldu zen gertaera, baina Maleni bost axola zitzaion. Benetan nahi zuena ondoan zeukan eta bazekien Nekanek ez zuela sekula bakarrik utziko. Poliki-poliki lehen zen bezalakoa izaten hasi zen; alaia, irekia eta berriak. Berak uste ez zuen arren, lagunek berriz ere koadrilan onartu zuten, konfiantza bere onera ez itzulita ere. Eta gaztetatik barruan zeraman korapilo hura askatu zuen, azkenean.

Batzuek Malenen aukera babestu zuten, beste asko, ordea, kritiko agertu ziren eta zeharka min egiten saiatu ziren. Gaur egun, erakunde feminista bateko kidea da eta homofobiaren aurka borrokatzen du. Aurrekoan, homosexualen ezkontzaren aldeko manifestazio batetik itzultzean, etxeko atean honako hau topatu zuen idatzita: “Marimutil madarikatua, joan zaitez hemendik denon onerako”. Hiri batera bizitzera joatea pentsatu du, baina nik hemen gelditzea nahi dut, oso harro bainago egiten ari denaz.

Nire izena Nekane da, 23 urte ditut eta Malenen lagunik onena izaten jarraitzen dut. Berak egindakoari oso ausarta deritzot, eta horregatik hartzen dituen erabakiak babesten ditut, merezi duelako. Batzuetan egoera beste ikuspegi batetik ikusteak asko laguntzen du. Baina benetan garrantzitsuena pertsonak dira. Benetako lagunak, esku bakarrarekin kontatuta ere, edozein momentutan laguntzeko prest baitaude.



Lehenengo taldea Saria

Bertsoa

Autokudeaketa

Ainhoa Salillas

Autokudeaketa

Eta dirua hemen
geldituko balitz?
azokan dena-erosten
oso pozik gabiltz.

Hemengo produktua
erosiko dugu
baserritarrak pozik
jarriko zaizkigu.

Organikoarekin
guk konposta egin
gero ortura bota
handi egin dadin.

Bilgarri asko eta
kutsadura ere
murriztuko ditugu
denontzat mesede.

Grabazioa hemen: <http://bergarakoeuskara.eus/node/227736>

Lehenengo taldea Saria

Bertsoa



Koldo Eleizalde lehiaketa

Lorea Arenaza, Maitane Gomez, Eider Elorza

Koldo Eleizalde lehiaketa

Nahi dugun gauza ona
da dibertitzea
Koldo Eleizalde lehian
giro ona sortzea
Guk gure bertsoakin
saria lortzea
Eta espero dugu
zuei gustatzea

Ez da ipuina soilik
hemen ariketa
Bertsoa ere sartzen da
egin dugu eta
Hirurok gaude gelan
orria beteta
Urtero izaten da
kriston lehiaketa

Grabazioa hemen: <http://bergarakoeuskara.eus/node/227752>

Bigarren taldea 1. saria

Bertsoa



Maitasuna

Manex Bengoa

Maitasuna

Maitasunari buruz hitzegin
izan dugunez tarteka,
eman dizkiot nire buruari
hainbatetan zenbait buelta.
Ta maitasuna aipatzea da
gaurko hontan nire meta,
mundu honetan maitasun mota
asko bereizten da eta.

Onartu dugu maitasun asko
dugula ondoan gero,
heterosexual, gay, lesbiana,
mota asko daude edo?
Formal, informal, bereiziezín,
gezurti, pelikulero,
maitasun aunitz ikusten baita
kaleetan egunero.

Gure ama, aita eta jendea
mundura sortu gintuna.
Beti ondoan laguntzeko prest
izaten dugun laguna.
Txakur itsusi, argal, moderno,
iletsu edo astuna,
Ta hauekiko sentimendua
ez ote da maitasuna?

Grabazioa hemen: <http://bergarakoeuskara.eus/node/227731>

Bigarren taldea 2. saria

Bertsoa

Euskal Herria

Jon Mata

Euskal Herria

1.

Egungo gai batetaz
mintzatzer a nator
nahiz eta ez naizen
bertsolari jator.
Sei urte gartzelan ta
dator kigu gogor
Arnaldo esperantzaz
beterikan dator.

2.

Herrialde askea
izateko nahia
hau ipini digute
betetzeko zaila.
Frankistak hasi ziran
berotuz masaila
hala ta guztiz ere
guk musu alaia.

3.

Maite dittut bazterrak
Laboak bezala
batzuetan giroa
izanik pattala.
Euria jasatea
ez da lan makala
Lorentzo hemen ez da
oso eskuzabala.

4.

Jaiez hitz egiteko
premia badago
hauek izaten dira
edarrak zeharo.
Txosnetan zein han hemen
ez de ezer faltako
aizak beteko al duk
basoa gehiago?

<http://bergarakoeuskara.eus/node/227720>


Lehenengo taldea Saria

Komikioa



Bi sagu teilatuan

Aroa Lazkoz, Lexeia Rodriguez



Lehenengo taldea Saria

Komikia



Mara margotzen ari da

Irati Ziarsolo



Lehenengo taldea Saria


Komikia



Bizia zeukan txorimaloa

Anne Matilla











07:00
Astelehenetik ostegunera
07:00

07:30
07:30
07:30

08:00
08:00
08:00


08:30
08:30
08:30


09:00
09:00
09:00

09:30
09:30
09:30

10:00
10:00
10:00

10:30
10:30
10:30





Bigarren taldea 1. saria


Komikia



Alperriko bueltia

Maren Arevalillo

ALPERRIKO BUELTIA



Bigarren taldea 2. saria

komikia



Demaseko bazkarixa

Irati Iñarra



Hirugarren taldea 1. saria


komikia



Teknologiaren iraultza

Joseba Carnicero

TEKNOLOGIAREN IRAUTZA





Hirugarren taldea 2. saria

komikia

Larunbat arratsaldeak

Uxue Egaña

